

**LANBIDERI BURUZKO GALDERA OROKORRAK**

1.	Zer da LANBIDE? .....	6
2.	Zein zerbitzu eskaintzen dizkit LANBIDEk? .....	6
3.	Zein dira LANBIDEren bezero eta, ondorioz, zein sar daiteke bertan? .....	6
4.	Nola sar naiteke LANBIDEren eta haren zerbitzuetan? .....	3
5.	LANBIDEren helbideak eta telefonoak .....	3
6.	Zertan hobetzen du LANBIDEk Eusko Jaurlaritzaren enplegu-zerbitzuen aurreko eskaintza? .....	3
1.	Telefono bidez, zein zerbitzu eskaintzen dizkit LANBIDEk? .....	8
7.	Ba al dago Internet bidez LANBIDEren sartzea? .....	8
8.	Ez al dago nahasmen handiegirik? LANBIDE, Eusko Jaurlaritza, Langai, Egailan .....	8
9.	LANBIDEk ba al du erakunde laguntzailerik? Zein eginkizun dute? .....	8
10.	Zein erakundek dute LANBIDEren ardura? .....	5
11.	Euskadin bada bestelako enplegu-zerbitzurik, esaterako INEM. Bateragarriak al dira? .....	5
12.	LANBIDE sortzean LANGAI desagertuko al da? .....	5
13.	Aldatu al da www.lanbide.net web-orria? .....	5
14.	Nola lotzen dira LANBIDEk eskaintzen dituen orientazio- eta enplegatze-zerbitzuak? .....	10
15.	Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan ez badut, LANBIDEra jo al dezaket? .....	10
16.	Inmigrantea nahiz eta nire egoera erregularizatu gabe daukat. LANBIDEren zerbitzuren batera joa al dezaket? .....	10
17.	Iradokizun, kontsulta edo kexu bat egin nahi izanez gero, nora jo dezaket? .....	11
18.	LANBIDEren Aguraingo bulegoa. Zein zerbitzu eskaintzen ditu? .....	11
19.	Aguraingo bulegoa. Non dago eta nola jar naiteke harremanetan? .....	11
20.	Aguraingo bulegoa. Zein ordutegi du jendeari arreta egiteko? .....	11
21.	Aguraingo bulegoa. Zer da Enplegugunea? .....	12
22.	(Arabako edozein herri) bizi naiz. Agurainera joan behar al dut LANBIDEren arreta jasotzeko? .....	12
23.	LANBIDEren Aguraingo bulegoan langabezia-prestazioak kobratu al ditzaket? .....	12
24.	Aguraingo bulegoan kudeatzen al da kontziliazio-eskaerak egiteko, lantokiak irekitzeko, aldi baterako laneko enpresen baimenak emateko, etab. dokumentaziorik? .....	12

**LANBIDEKO ORIENTAZIOARI BURUZKO GALDERAK**

1.	Lan bila nabil. Hemen lanik bilatzen al didazue? .....	13
2.	Zein da eskaintzen didazuen enplegurako orientazioaren lehen urratsa? .....	13
3.	Zein ekintzek osatzen dute lan-munduratzeko plan pertsonala? .....	13
4.	Eta zenbat denbora eramango dit enplegurako orientazioak? .....	14
5.	Orientazioan baldin banago, lanetarako deituko al didazue? .....	14
6.	Prestakuntza edo praktikak egiten baditut, enplegatze aurretiko hautaketatik kanpo geratuko al naiz? .....	14
7.	Zerbait ordaindu behar al dut? .....	14
8.	Bidaia ordainduko al dizkidate? .....	14
9.	Beste enplegu-zerbitzu batean izena emanda egon al naiteke? .....	15
10.	“Paperik gabeko” inmigranteei ere zerbitzuak eskaintzen al dizkiozue? .....	15
11.	Orientazioan sartuz gero, nire prestazioa galdu al dezaket? .....	15

Tema	Página
12. Zer eskaintzen didazue enpresa bat sortzeko?.....	15
13. Ez dakit zertan lan egin dezakedan. Hemen esango al didazue? .....	15
14. Lana aurkitzen badut, etortzen jarraitu behar al dut? .....	15
15. Hemen, nire alabarentzat, emaztearentzat, senarrarentzat... lana bilatzen al duzue? .....	15
<b>PRESTAKUNTZARI BURUZKO GALDERAK</b>	
1. Prestatu nahi dut. Nola eman dezaket izena interesatzen zaidan ikastaroan? .....	17
2. Nola sar naiteke Orientazio-zerbitzuan, ikastaro batean izena eman diezadaten? .....	17
3. Eta prestakuntza-ekintza ematen duen zentrorra zuzenean jotzen badut, horrek izena emango al dit? .....	17
4. Orientazio Zentroak prestakuntza-ekintza batean izena emateak plaza bat ziurtatzen al dit? .....	17
5. Izena ematea doan al da, edo matrikularen ordaindu behar al dut? .....	17
6. Lana aurkitzen badut, ikastaroa utzi al dezaket? .....	17
7. Ikastaroa arrakastaz amaitzen badut, zer emango didate? .....	18
8. Parte hartu dudan ikastaroa amaitzean curriculuma eguneratu behar al dut? .....	18
9. Web-orritik ikastaro batean izena eman al dezaket? .....	18
<b>ENPLEGATZEARI BURUZKO GALDERAK</b>	
1. Zein izan daiteke LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuaren erabiltzaile? .....	19
2. Langain izena emanda nago. Zer egin behar dut LANBIDEn izena emateko? .....	19
3. Zer egin behar dut LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izen emateko? .....	19
4. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko zentro batean arreta jasotzeko aurretiazko hitzordurik eskatu behar al dut? .....	19
5. Lanbide Heziketako edo Unibertsitateko Ikasketak amaitzen ditudanean, izena eman al dezaket LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan, ikasketak egin ditudan ikastetxean? .....	20
6. Aurretiazko hitzordurik eskatu gabe, zentro laguntzaile batean arreta jaso al dezaket CVA eta egoera administratiboa (demandaren alta, baja edo etena) aldatzeko? .....	20
7. Dagoeneko izena emanda nago LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan eta eskaera berritu beharra daukat. Aurretiazko hitzordurik eskatu gabe arreta jaso al dezaket? .....	20
8. Zer egin behar dut hitzordura joan ezin banaiz (eskatzaile gisa)? .....	21
9. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emateko aurretiazko hitzordua eska al dezaket <a href="http://www.lanbide.net">www.lanbide.net</a> orrian? .....	21
10. Zein dokumentazio aurkeztu behar dut LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emateko? .....	21
11. CVA eguneratzeko dokumenturik eraman behar al da? .....	21
12. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko hedatutako eskaintza bat ikusi dut (esaterako, egunkarian), baina ez nago zerbitzuan izena emanda. Zer egin dezaket? .....	21
13. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emanda baldin banago, INEMen ere izena emanda al nago? .....	21
14. Kontsultatu al dezaket nire curriculuma <a href="http://www.lanbide.net">www.lanbide.net</a> orrian? .....	22
15. Nire CVA eguneratu al dezaket <a href="http://www.lanbide.net">www.lanbide.net</a> orrian? .....	22
16. Curriculumaren zein aldaketa-motak eskatzen du zentro laguntzaile batera joatea, eta zeinek ez? .....	22
17. Lanean hasten banaiz, nire lan-eskaera LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan bajara	

Tema	Página
pasatzen al da? .....	22
18. Alta, baja edo etenaren egoera alda al dezaket telefonoz deituz edo www.lanbide.net orriaren bidez? .....	22
19. Nire eskaera Eskaeraren Alta eta Berritzeko Dokumentuan adierazitako egun zehatzean berritu behar al dut nahitaez? .....	22
20. Ospitalean egoteagatik ezin izan dut nire eskaera berritu eta baja eman didate. Bajako aldi hori berreskura al dezaket? .....	23
21. Nola eguneratu dezaket nire eskaera horretarako aurretiazko hitzordurik eskatu gabe?.....	23
22. Enpresa batek LANBIDEn zentro laguntzaile batengana jo al dezake lan-eskaintza bat kudeatzeko? .....	23
23. Zentro laguntzaile batek ABLE bati edo langileak hautatzeko enpresa bati alta eman al diezaioke, eskaintza kudatzeko eskaera berorren egiturarako planteatzen badu? .....	23
 <b>LAN MUNDURATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEI BURUZKO II. ATALARI BURUZKO GALDERARIK OHIKOENAK</b>	
1. Zeri ematen zaio diru-laguntza atal honetan? .....	24
2. Zein izan behar du kontratuen gutxienezko iraupenak eta izan al daitezke lanaldi partzialekoak?.....	25
3. Zer diru-kopuruko laguntza dago ezarriarik kontratazio hauetarako? .....	25
4. Zertan datza plantilla handitzea?.....	26
5. Zein da langileak kobratu behar duen gutxienezko soldata? .....	26
6. Zein epe daukat diru-laguntzarako eskaera aurkezteko? .....	27
7. Nola kobratzen da diru-laguntza?.....	27
 <b>TXANDAKO KONTRATUAK EGITEAREN ONDORIOZKO LAGUNTZEN GAINENAK III. ATALARI BURUZKO GALDERARIK OHIKOENAK. (PERTSONALA BERRITZEKO LAGUNTZAK)</b>	
1. Txandako langileak gaixotasun baten edo amatasunaren ondorioz baja hartzen badu, diru-laguntzari eusteko beste pertsona bat kontratatu behar al da? .....	28
2. Txandako aurreko langilearen kontratua iraungitzeagatik, txandako langile berriaren kontratazioari buruzko jakinarazpenarekin batera, zein dokumentazio aurkeztu behar da? .....	28
3. Diru-laguntzaren 2. zatia kobratzeko zer dokumentazio aurkeztu behar dut eta noiz? .....	28
4. Denbora-zatizko txandako kontratu bat diruz lagundu al daiteke? .....	29
5. Txandakotzat kontratatutako langileak enplegu-zerbitzu publiko batean lan-eskatzailerik gisa izena emanda egon behar al du? .....	29
 <b>LAN DENBORA BANATZEAREN ONDORIOZKO LAGUNTZEN GAINENAK IV. ATALARI BURUZKO GALDERARIK OHIKOENAK</b>	
1. Zein laguntza izango luke enpresak pertsonalean langile bat kontratatuz gero, seme-alaba zaintzeagatik lanaldia murriztu duen beste langile bat ordezkatzeko? .....	30
2. Seme-alaba zaintzeagatik lanaldia murriztu duen langilea ordezkatzeko duen pertsonari zein lanalditarako kontratatu beharko genuke? .....	30
3. Zein kontratu-mota egin beharko genioke? .....	30
4. Aldi baterako laneko enpresa bat, langabeziaren ondoriozko prestazioak jasotzen urtebetetik gora daraman pertsona bat kontratatzen duena, familiakoak zaintzeko lan-utzialdiagatik beste langile bat ordezkatzeko, Gizarte Segurantzarako kuota-murrizketaren onuradun izan al daiteke? .....	30
5. Enpresa gisa diru-laguntza bat eskatzen badut, emakumezko langile bat lanaldi-erdirako	

kontratzeagatik, seme-alaba zaintzeko lanaldia erdira murriztea eskatu duen emakumezko beste langile bat ordezkatzeko; ondoren, kontratatutako emakumezko langilearen lanaldia 2/3ra edo lanaldi osora zabaldu al dezaket, diru-laguntzarako eskubideari kalterik egin gabe? ..... 30

**PERTSONA TOXIKOMANO OHIAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK**

1. Pertsona toxikomano ohia kontratatu nahi nuke. Ba al dago diru-laguntzarik horrelako kontratazioetarako? ..... 31
2. Hasteko, zer egin behar dut? ..... 31
3. Non aurkeztu behar dut kontratazio horren diru-laguntza jasotzeko eskaera? ..... 31
4. Zenbateko laguntza jasoko dut eta nolako kontratua egin diezaioket? ..... 31
5. Zer gertatzen da, edozein arrazoi dela medio, kontratua diru-laguntza jasotzeko epea bete baino lehenago deuseztatzen bada? ..... 32

**LAN BIZITZA ETA FAMILIA BIZITZA BATERATZEKO NEURRIEN GAINEKO VI. KAPITULUARI BURUZKO GALDERARIK OHIKOENAK**

1. Zein unetatik aurrera eska daiteke diru-laguntza? ..... 33
2. Zer da hirugarren interesatuaren altako fitxa? ..... 33
3. Non lor daitezke inprimakiak? Web-orrian agertzen diren inprimakiak erabil al ditzaket? Non entregatu behar ditut? ..... 33
4. Zeinek eman behar dizkit gizarte Segurantzako baja-partearen kopia, lan-utzialdiaren kasuan, edo Gizarte Segurantzako datuak aldatzeari buruzko partearen kopia, lanaldia murriztearen kasuan, edota lan-utzialdiaren edo lanaldi-murrizketaren ziurtagiria? ..... 33
5. Eskatu beharreko gutxieneko aldirik ba al da? ..... 33
6. Zein izan daiteke laguntza horren onuradun? Langile autonomo batek eskatu al dezake? ..... 33
7. Diru-laguntza horiek bestelako familiakoak, hau da, gurasoak, aitona-amonak, osaba-izebak... zaintzeko suposizioa barne hartzen al dute? ..... 33
8. Zertan datza dirulaguntza? Kobratu beharreko kopurua bat al dator lan-egoera horietara biltzean jasotzen ez diren diru-sarrerekin? Baldintza ekonomikorik ba al dago? Familia-unitateen diru-sarrerak edo antzekoak kontuan hartzen al dira? ..... 34
9. Aldi jakin baterako diru-laguntza ematen badidate, aldi hori osorik bete behar al dut? Lehenago itzuli al naiteke? Zer egin behar dut halakoetan? ..... 34
10. Nola ordaintzen da diru-laguntza? ..... 34
11. Zer dokumentazio aurkeztu behar da bigarren eta hirugarren ordainketak jasotzeko? Administrazioak ohartarazten al digu noiz entregatu behar dugun? ..... 34
12. Diruz lagundutako aldia amaitu ondoren luzapen bat egin nahi badut, nola jardun behar dut? Idatziz jakinarazten badut, automatikoki luzatzen al da? ..... 34
13. Lanaldia bi enpresatan edo gehiagotan egiten badut, lan-utzialdira edo lanaldi-murrizketara bilduz gero, nola egin behar dut eskabidea? ..... 35
14. Dirulaguntza bat baldin banuen eta hura eten egin badut, ondoren hari eusteko aukerarik ba al dut? ..... 35

**EKINTZAILEENTZAKO AHOLKULARITZARI ETA PRESTAKUNTZARI BURUZKO GALDERAK**

1. Langabea izan behar al dut, sustatzaile berri gisa prestakuntza eta aholkularitza lortu ahal izateko? ..... 36
2. Eta nire enpresa berria sustatzen hasteko orientazioak zenbat denbora emango dit? ..... 36
3. Zerbait ordaindu behar al dut? ..... 36
4. Bidaiak ordainduko al dizkidate? ..... 36

Tema	Página
5. “Paperik gabeko” inmigrantei ere enpresak sustatzeko zerbitzuak eskaintzen al dizkiozue? .....	36
6. Enpresa bat sustatzeko asmoz enplegurako orientazioan sartuz gero, nire prestazioa galdu al dezaket? .....	36
7. Zer eskaintzen didazue enpresa bat sortzeko?.....	37
8. Enpresa abiarazi ondoren, zer eskaintzen didazue? .....	37
<b>ENPRESAK SORTZEKO DIRU LAGUNTZEI ETA BESTELAKO LAGUNTZEI BURUZKO GALDERAK</b>	
1. Zein izan daiteke enpresa-egitura berriak sortzeko diru-laguntzaren onuradun?.....	38
2. Diru-laguntza eskatzeko nahitaezkoztat eskatzen den enpresa-kudeaketari buruzko ikastaroak zein baldintza bete behar ditu?.....	38
3. Enpresa-kudeaketari buruzko ikastaroa egitea nahitaezkoa al da denentzat?.....	38
4. Zein epe dago diru-laguntzarako eskabidea aurkezteko?.....	38
5. Enpresak sortzeko laguntza eskatu eta jasotzeko, inbertsioren bat egin izatea egiaztatu behar al da? .....	38
6. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo biziz gero, diru-laguntzarik eska al daiteke? .....	38
7. Enpresak sortzeko diru-laguntza bateragarria al da beste erakunde batzuen bestelako diru-laguntzekin?.....	38
8. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinarazi behar al zaio diru-laguntza emateko baldintzak aldatu izatea? .....	39
9. Autonomo gisa ezartzen den eta lehendik eraturako ondasun-erkidego, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate batean sartzen den norbaitek diru-laguntza eska al dezake? .....	39
10. Ondasun-erkidego, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate batek enpresa-egitura berriak sortzeko diru-laguntza eska al dezake, kide batzuek dekretu arautzailean ezarrita dauden baldintzak betetzen dituztenean eta beste batzuek ordea ez? .....	39
<b>SISTEMARI ETA HAREN APLIKAZIOEI BURUZKO GORABEHERA TEKNIKOAK</b>	
1. Gorabehera: SISTEMAREN GUTXIENENKO ESKAKIZUNAK.....	40
2. Gorabehera: SISTEMAREKIKO KONEXIOA.....	40
3. Gorabehera: APLIKAZIORAKO SARBIDEA .....	40
4. Gorabehera: SARTUTAKO DATUAK EZIN DIRA GRABATU .....	40
5. Gorabehera: SISTEMA MOTEL DABIL.....	40
6. Gorabehera: APLIKAZIOAK ERRORE BAT EMATEN DU .....	41
7. Gorabehera: APLIKAZIOA ZINTZILIK GERATU DA.....	41

### **1. Zer da LANBIDE?**

Euskal Enplegu Zerbitzua da.

Lana bilatzen laguntzeko sortua da eta, horretarako, pertsonalki orientatzen zaitu. Zerbitzu hauek eskaintzen dizkizu: informazioa, orientazioa, prestakuntza eta lan-eskaintzak, zure enplegua aurkitzeko aukera gehiago izan ditzazun.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren zerbitzu bat da LANBIDE.

### **2. Zein zerbitzu eskaintzen dizkit LANBIDEk?**

Lanbidek lana bilatzeko gidatutako plan pertsonala eskaintzen dizu, ondoko zerbitzu hauen bitartez:

- Lan-merkatuari buruzko informazioa, zure lanbidearekin zerikusia duen guztia, laguntzak, legeria, argitalpenak...
- Orientazioa: elkarriketa pertsonalarekin hasten den prozesu malguaren bitartez, enpleguak identifikatzen eta lana etengabe bilatzen laguntzen dizugu.
- Prestakuntza: zure lanbide-helburuetarako eta lan-merkatuaren aukerretarako prestakuntza egokiena ematen dizugu.
- Enplegatzea: lan-eskaintzetarako eta hautaketa-prozesuetarako sarbidea errazten dizugu.
- Autoenplegua: enpresa bat edo negozio txiki bat sortu nahi baduzu, hura abiarazteko aholkularitza eta laguntza izango duzu.

Lanbideren bulegoetan, Enplegugunera jo dezakezu. Bertan, lana bilatzeko aukerak zabaltzeko informatika-baliabideak izango dituzu eskura.

### **3. Zein dira LANBIDEren bezero eta, ondorioz, zein sar daiteke bertan?**

Lehenik, lan-eskatzaileak eta enpresak ere.

Lan-eskatzaileen kasuan:

- Langabeak.
- Enplegu ezegonkorak dituztenak.
- Langabezian geratzeko arriskua duten enplegatuak.
- Ez-aktiboak. Lan bila ari ez diren pertsonak, beraientzat aukerarik ez dagoela usteagatik.
- Eta, salbuespen gisa: lana aldatzea (hobetzea) eskatzen dutenak. Horiei, argitaratutako eskaintzetarako (hedapenezko parekatzea) bitartekotza eskainiko zaie.

Enpresen kasuan, LANBIDEren bezero izango dira:

- Pertsonak kontratatu nahi dituzten enpresak.
- Lan-merkatuko aldaketak eta, aldaketa horien ondorioz, giza baliabideen beharrak antzematearren, bisitaldien bidez aztertzen ditugun enpresak.

#### **4. Nola sar naiteke LANBIDEn eta haren zerbitzuetan?**

LANBIDEn sartzeko hiru bide hauek dituzu:

- Telefonoa: 901 100 003 zenbakira deituz, 9:00etatik 21:00etara.
- Bulegoak: Agurainen eta, irailetik aurrera, Basaurin e Irunen.
- Internet: [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) web-orrian, orientazioa, prestakuntza eta enplegatzea zerbitzuen bidez.
- LANBIDE – ORIENTAZIOA zerbitzuko erakunde laguntzaileen sarea.

#### **5. LANBIDEn helbideak eta telefonoak**

- Telefonoa: 901 100 003
- Bulegoak: Agurain:  
Donibane Plaza 1  
Tel.: 945 300 328  
Faxe: 945 300 192  
e-mail: [agurain@lanbide.net](mailto:agurain@lanbide.net)

Irailetik aurrera, Basaurin e Irunen.

LANBIDE – ORIENTAZIOA zerbitzuko erakunde laguntzaileen sarea.

Zerbitzu Nagusiak

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza  
Donostia, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz
- Egailan. Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoa  
Nieves Cano kalea, 29 D  
01006 Vitoria-Gasteiz
- Eusko Jaurlaritzako Laneko lurralde-ordezkaritzak:
  - Araba: Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz / Tel.: 945 01 70 30
  - Bizkaia: Kale nagusia 85 – 7.a / Tel.: 94 403 12 16 – 94 403 12 39
  - Gipuzkoa: Vitoria-Gasteiz kalea 3 – 3.a / Tel.: 943 02 32 00

#### **6. Zertan hobetzen du LANBIDEk Eusko Jaurlaritzaren enplegu-zerbitzuen aurreko eskaintza?**

Enplegurako orientazioaren bitartez baliabide guztiak koordinatu eta bateratzean datza hobekuntza nagusia. Helburua da pertsonen beharrei erarik egokienean erantzutea.

Zure orientatzailearen eskutik izango duzun arreta pertsonalizatuari esker, harekin adostu ahal izango dituzu lan-munduratzeko zure plan pertsonalaren ezaugarriak, zure beharretara egokitutako lanerako prestakuntza eta enplegatze zerbitzuko izen-ematea.

### **1. Telefono bidez, zein zerbitzu eskaintzen dizkit LANBIDEk?**

Telefono bidez, LANBIDEn bildutako zerbitzu guztiak dituzu eskuragarri: informazioa, orientazioa, prestakuntza, enplegatzea, enpresa-sustapena eta laguntzak.

901 100 003 telefonora deitu eta arreta jasotzeko aurretiazko hitzordua eskatu besterik ez duzu.

### **7. Ba al dago Internet bidez LANBIDEn sartzea?**

Zerbitzuaren orria hau da: [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net).

Helbide horretan sartuta, LANBIDEn bildutako zerbitzu guztiak dituzu eskuragarri: informazioa, orientazioa, prestakuntza, enplegatzea, enpresa-sustapena eta laguntzak.

Eduki horietako bakoitzean, arreta pertsonala jasotzeko aurretiazko hitzordua nola lortu adierazten da.

### **8. Ez al dago nahasmen handiegirik? LANBIDE, Eusko Jaurlaritza, Langai, Egailan**

LANBIDE sortzearen helburua da Eusko Jaurlaritzaren enplegu- eta prestakuntza-programak erraztea eta horien kalitatea hobetzea.

Aurreko zerbitzuen marka eta izendapen guztiak izen bakarrean biltzen eta bateratzen dira: LANBIDE – Euskal Enplegu Zerbitzua.

Interesatzen zaizkizun zerbitzu guztiak dituzu LANBIDEn. Guztiak argi eta garbi identifikatzen dira: LANBIDE – Orientazioa, LANBIDE – Enplegatzea, etab.

### **9. LANBIDEk ba al du erakunde laguntzailerik? Zein eginkizun dute?**

LANBIDEk enplegu-zerbitzua garatzeko euskarri izango ditu, berorren bulegoak ez ezik (zerbitzua abiarazten denetik zabalitzen joango dira), aukeratzen dituen erakunde laguntzaile espezializatuak ere.

Hasiera batean, erakunde laguntzaileak hauke izango dira:

- LANBIDE – ORIENTAZIOA zerbitzuko erakunde laguntzaileak. Horien eginkizuna izango da, informazio pertsonalizatua jasotzeko aurretiazko hitzordua lortu ondoren, lan-munduratzeko plan pertsonala zehaztu eta garatzea. Beraiek dira LANBIDE osatzen duten zerbitzu guztietarako sarbidea. Kontsultatu zein zentro duzun etxetik gertuen. Aipatutako erakundeak, aldi berean, enplegatze zentro laguntzaile dira.
- LANBIDE – PRESTAKUNTZA zerbitzuko erakunde laguntzaileak. Horien eginkizuna da enplegurako eta enpresa-sustapenerako prestakuntza-baliabideak ematea, lan-eskatzailen beharren neurrian.
- LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko erakunde laguntzaileak. Horien eginkizuna da enplegurako sarbidea erraztea, lan-eskaintzak jasoz eta bilatuz.
- Aurki, informazio-zentroen sarea sortuko da, lan bila ari direnentzat LANBIDEk eskuragarri jarriko dituen baliabideak hedatuko dituena.

**10. Zein erakundek dute LANBIDEn ardura?**

LANBIDE zerbitzuaren titularra Eusko Jaurlaritza da.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila da zerbitzuaren arduraduna.

LANBIDE Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzaren eta Egailan haren sozietate publikoaren bidez kudeatzen da. Biek euren ahaleginak batu dituzte, eraginkortasun eta kalitate handiagoa lortzearen.

**11. Euskadin bada bestelako enplegu-zerbitzurik, esaterako INEM. Bateragarriak al dira?**

Euskadin ez da akordio politikorik lortu, enpleguko eskumenak Eusko Jaurlaritzari eskualdatzeko.

Horren ondorioz, zenbait enplegu-zerbitzu ditugu. LANBIDE eta INEM dira ezagunenak.

Guztiak erabil ditzakezu. Aztertu zeinek eskaintzen dizun kalitate eta arreta hoberena. Guztiak aldi berean erabil ditzakezu.

**12. LANBIDE sortzean LANGAI desagertuko al da?**

LANGAI – Euskal Lan Zerbitzua ez da desagertuko. LANBIDEn sartuko da eta LANBIDE – ENPLEGATZEA izena hartuko du.

Jakin ezazu eskubide guztiei eusten dizkiozula lan bila ari den eskatzaile gisa.

Dagoeneko izena emanda bazaude eta enplegu-zerbitzuan zure egoera aldatu nahi baduzu, jarri harremanetan izena eman zizun erakunde laguntzailearekin. Zure lan-bilaketaren plangintzan laguntzea nahi baduzu, hau duzu erreferentziako telefonoa: 901 100 003.

Izena emanda ez bazaude, jarri harremanetan LANBIDekin, 901 100 003 telefonoan, eta hasi lan-bilaketa planifikatzen ahalik eta modu eraginkorrean.

**13. Aldatu al da [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) web-orria?**

Oraindik ere, [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) web-orria da lan-merkatuari buruzko informaziorako eta sarbiderako erreferentzia Euskadin.

Bertan egindako aldaketei esker, LANBIDE eta hura osatzen duten zerbitzuak ezagutu eta horietan sartu ahal izango zara.

Aldaketa garrantzitsuenak logotipoetan eta zerbitzuen izendapenetan sumatuko dituzu. Edukietan eta zerbitzuetarako sarbideetan ere aldaketa batzuk egin ditugu, LANBIDEk eskaintzen dizkizun baliabideei buruzko informazio eguneratua emateko.

**14. Nola lotzen dira LANBIDEk eskaintzen dituen orientazio- eta enplegatze-zerbitzuak?**

Hona hemen ezarri dugun ibilbidea:

- 1. Pertsonari hasierako harrera egiten zaio eta aurreorientaziora bideratzen da (orientatzaile batekin hitzordua ematen zaio).**
- 2. Aurreorientazioko fasean, orientatzaileak pertsonari jarraitzea komeni zaion ibilbidea adosten harekin:**
  - a. enplegurako orientazio-prozesu osatura bideratzea,
  - b. orientazio-prozesu laburragera bideratzea, edota prestakuntza-ekintza jakin bat egiteko komenigarritasuna aztertzea,
  - c. ekiteko ikastaroa (ekitea – autoenplegua atalerako laguntzak lortzeko beharrezkoa) egitetik salbuetsita dagoen erabakitzeke elkarriketara bideratzea,
  - d. lan-eskaera enplegatzeke eguneratzerara edo alta ematera bideratzea,
  - e. gizarte-zerbitzuetara bideratzea (orientazio-prozesuarekin batera edo aurretik), edo
  - f. prozesuaren amaiera (bezero ez izateagatik edota pertsona interesatuta ez egoteagatik).
- 3. Pertsona orientazio-prozesu osatura bideratu bada, prozesu horretan lan-munduratzeari buruzko diagnostiko bat eta plan pertsonal bat egingo zaio.** Horrek zenbait jarduera ezartzea dakar, planean finkatutako helburuak lortzearen. Asmoa da diagnostikoan zehar antzemandako pertsonaren ahulguneak sendotzea, lan-bilaketan arrakasta izatea eragozten dutenak. Gainera, haren lan-eskaera enplegatzeke altan jarriko da, eta, ezartzen zaizkion jarduerak eta interesatuaren egoera pertsonala eta borondatea kontuan izanda, eskaera hori eten egingo da ala ez.
- 4. Planean ezarritako jardueren artean, baimendutako prestakuntza-ekintzak edo ikastaroak daude.** Horiek Prestakuntza Katalogoan bilduta daude eta PRESTAKUNTZA – LANBIDE zerbitzuko erakunde laguntzaileek emango dituzte.
- 5. Orientazio-prozesuaren azken fasea pertsonari lana bilatzen edo berorren enpresa sortzen (autoenplegua) laguntzea da.** Pertsonaren egoera kontuan izanda, prozesu horrek jarraitu ahal izango du pertsona kontratatuta dagoen aldiaren ere (aldizkako topaketak). Fase horretan, lan-eskaera aktibo egongo da eta pertsonak LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuak kudeatzen dituen lan-eskaintzekiko parekatze automatikoetan parte hartuko du.

**15. Bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan ez badut, LANBIDEra jo al dezaket?**

Bai, LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuari dagokionez salbu. Zerbitzu horretan sartzeko, EAEn bizilekua duzula egiaztatu behar duzu, irabazi-asmorik gabeko enplegatzeke agentzia baimendu gisa haren lurralde-esparrua gure erkidegora mugatzen baita. Halakoetan, bizilekua duzun erkidegoari dagozkion enplegu-zerbitzuen berri emango dizugu.

**16. Inmigrantea nahiz eta nire egoera erregularizatu gabe daukat. LANBIDEren zerbitzuren batera joa al dezaket?**

Bai, LANBIDEn zure lan-egoera hobetzen lagunduko dizun lan-ibilbideari buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza emango dizkizugu.

**17. Iradokizun, kontsulta edo kexu bat egin nahi izanez gero, nora jo dezaket?**

Bezzeroari erantzuteko zerbitzuaren bidez egin dezakezu. Aukera hauek dituzu:

- 901 100 003 telefonora deituz.
- Postaz, hona zuzenduta:  
Zerbitzu Nagusiak:
  - Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza  
Donostia, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz
  - Egailan. Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoa  
Nieves Cano kalea, 29 D  
01006 Vitoria-Gasteiz

Eusko Jaurlaritzako Laneko lurralde-ordezkaritzak:

- Araba: Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz / Tel.: 945 01 70 30
- Bizkaia: Kale nagusia 85 – 7.a / Tel.: 94 403 12 16 – 94 403 12 39
- Gipuzkoa: Vitoria-Gasteiz kalea 3 – 3.a / Tel.: 943 02 32 00

**18. LANBIDEren Aguraingo bulegoa. Zein zerbitzu eskaintzen ditu?**

LANBIDEk Agurainen ondoko zerbitzuok eskaintzen dizkizu:

- Lan-merkatuari buruzko informazioa, zure lanbidearekin zerikusia duen guztia, laguntzak, legeria, argitalpenak...
- Orientazioa: elkarrizketa pertsonalarekin hasten den prozesu malguaren bitartez, enpleguak identifikatzen eta lana etengabe bilatzen laguntzen dizugu.
- Prestakuntza: zure lanbide-helburuetarako eta lan-merkatuaren aukerretarako prestakuntza egokiena ematen dizugu.
- Enplegatzea: lan-eskaintzetarako eta hautaketa-prozesuetarako sarbidea errazten dizugu.
- Autoenplegua: enpresa bat edo negozio txiki bat sortu nahi baduzu, hura abiarazteko aholkularitza eta laguntza izango duzu.

**19. Aguraingo bulegoa. Non dago eta nola jar naiteke harremanetan?**

Donibane Plaza 1  
Tel.: 945 300 328  
Faxa: 945 300 192  
e-mail: [agurain@lanbide.net](mailto:agurain@lanbide.net)

**20. Aguraingo bulegoa. Zein ordutegi du jendeari arreta egiteko?**

08:30etik 14:30era, astelehenetik ostiralera, irailaren 30 arte.  
08:00etatik 17:00etara, astelehenetik ostegunera, eta 08:00etatik 15:00etara, ostiralean.

**21. Aguraingo bulegoa. Zer da Enplegugunea?**

Ordenagailuak, enpleguan espezializatutako prentsa, argitalpenak, enpresen direktorioak eta lana bilatzearekin zerikusia duen informazio guztia eskuragarri dituzun esparrua da.

Internetetik lan-eskaintzei, enpresen direktorioei... buruzko informazio eguneratu guztia aurkitzen lagunduko dizugu.

Sarrera librea eta doan da.

**22. (Arabako edozein herri) bizi naiz. Agurainera joan behar al dut LANBIDEn arreta jasotzeko?**

Aguraingo bulegora nahiz LANBIDE – ORIENTAZIOA zerbitzuko erakunde laguntzaileen sareko edozein zentrotara jo dezakezu. Kontsultatu telefonoz (901 100 003) edo Internet bidez ([www.lanbide.net](http://www.lanbide.net)) bulegoen eta zentro laguntzaileen zerrenda

**23. LANBIDEn Aguraingo bulegoan langabezia-prestazioak kobratu al ditzaket?**

Ez, langabezia-prestazioak kudeatu eta kobratzeko Inem-era jo behar duzu.

**24. Aguraingo bulegoan kudeatzen al da kontziliazio-eskaerak egiteko, lantokiak irekitzeko, aldi baterako laneko enpresen baimenak emateko, etab. dokumentaziorik?**

Ez. Izapide horiek Arabako Laneko Lurralde Ordezkaritzan egin behar dituzu, Samaniego kaleko 2 zk.an (tel.: 945 01 70 30).

### **1. Lan bila nabil. Hemen lanik bilatzen al didazue?**

Lanbidek ez du langabeen artean banatzeko "lanik". Informazioa eta aholkularitza eskaintzen dizkizu, lan-bilaketan arrakasta handiagoa izan dezazun.

Lanbidek, enplegurako orientazio-zerbitzutik, orientazioaren arloko profesionalen aholkularitza eskaintzen dizu, lan-munduratzeko plan pertsonala adostasunez ezartzeko.

### **2. Zein da eskaintzen didazuen enplegurako orientazioaren lehen urratsa?**

Alde batetik, zure egoera pertsonalaren, zure lanbide-kualifikazioaren, zure lan-esperientziaren, zure interesen eta lanbide-itzaropenen... azterketatik abiatzen gara, eta bestetik, lan-merkatuak eskaintzen dituen lan-aukeretatik, zure interesak eta gaitasunak kontuan izanda. Hau da, lan-munduratzeko alderdi profesional eta pertsonal garrantzitsuenak identifikatu eta baloratzen ditugu eta, horietatik abiatuta, lan-merkatuan dauden enplegu-aukera horietara hurbiltzeko estrategiaren jarraibideak eman eta adosten ditugu. Lan hori banakako elkarrizketen bidez egiten dugu eta, beharrezkoak izango balira, zure lanbide-kualifikazioa neurtzeko probak ere egiten ditugu.

Hortik abiatuta, lan-merkatuko enplegu-aukeretara hurbiltzeko prozesu horretan epe laburrean eta luzean eskuratu beharreko lorpenak idatziz, modu eraginkorrean eta pertsona bakoitzarekin adostuta finkatzen ditugu. Horrek bi konpromiso dakartza, hots: lan-eskatzailerearen konpromisoa, lan-munduratzeko berorren plan pertsonalean finkatutako helburuekiko; eta orientatzailearen konpromisoa, plana garatzean lan-eskatzaileri lagundu eta jarraitzekoa eta, beharrezkoa izanez gero, hura egokitzekoa, plana etengabe berriro definituz.

### **3. Zein ekintzek osatzen dute lan-munduratzeko plan pertsonala?**

Bakoitzaren beharren arabera, "enplegatzeko aukerak" hobetuko dituzten mota orotako ekintzak bildu ahal izango dira lan-munduratzeko plan pertsonalean, besteak beste:

- Zure burua hobeto ezagutzen eta enplegua lortzeko zure gaitasunetan sakontzen laguntzen duten banakako edo taldeko ekintzak.
- Komunikatzeko, talde-lanerako... zure trebeziak hobetuko dituzten banakako edo taldeko ekintzak. Gaitasun horiek asko baloratzen dira produkzioaren ingurunean.
- Lan-merkatuaren funtzionamenduari buruzko informazio- eta ezagutza-ekintzak, eta zure lanbide-helburuari lotutako lana bilatzeko teknika eraginkorretan prestatzekoak. Lanbidek badu ere enplegu-zentro bat, bibliografia erabilgarria eta enpleguari buruzko web-orri eta -atarietarako sarbidea barne hartzen dituena, lan-munduratzeko zure plan pertsonala abiarazteko behar duzun informazioa lortzen laguntzeko.
- Lanerako prestakuntzako banakako edo taldeko ekintzak, zure lanbide-kualifikazioa hobetzeko: teorikoak, praktikoak edo enpresako ikaskuntza praktikokoak; komenigarriena izanez gero, prestakuntza lan-kontratu batekin partekatze aukerarekin ere.
- Zeure negozioa abiarazteko aholkularitza eta prestakuntza eta, era berean, lehen urtean, zure enpresa abiarazteko eta mantentzeko diru-laguntzetarako sarbidea.

Era berean, egokien jotzen denean, Lanbideren Enplegatze Zerbitzuan izena emango dizugu, Lanbideren bitartez enpresek eskainitako lanpostuetarako pertsonala aukeratzeko prozesuetan parte har dezazun. Lanbideren Enplegatze Zerbitzuak automatikoki burutzen ditu bere prozesuak, aukera-berdintasunaren, bizkortasunaren eta eraginkortasunaren printzipioei jarraituz.

#### 4. Eta zenbat denbora eramango dit enplegurako orientazioak?

Enplegurako orientazio-prozesuaren iraupena oso aldakorra da. Zeure beharren eta lan-munduratzeko zure plan pertsonala abiarazteko behar duzun laguntzaren arabera dago. Batzuentzat nahikoa da ideiak ordenan jartzeko saio bakarra eta, ondoren, jarraipen puntual batzuk egitea. Beste batzuentzat, berriz, prozesuak zenbait hilabetetan harremanetan egotea eskatzen du. Horiekin, beraien denbora-eskuragarritasunari egokitutako saioen plana ezartzen da. Zoaz hurbilen duzun Lanbideko bulegora, eta orientazioko profesional batek adieraziko dizu zertan lagundu diezazukegun eta nondik has gaitzkeen.

#### 5. Orientazioan baldin banago, lanetarako deituko al didazue?

Bakoitzak, orientazioko profesionalarekin batera, erabakitzen du Lanbideren euskal enplegu-zerbitzuaren bitartez bitartekotzan aritzea egokiagoa noiz den: Lanbiden sartu eta berehala, prozesu orokorraren amaieran... Aldi baterako, erabilgarria izan daiteke bitartekotzan aritu gabe sartzeari, edota lan-bilaketan arrakasta lortzeko aukera handieneko hautagai izateko bidea ematen duen ibilbidearen faseak osatzen diren bitartean bitartekotzan aritzea. Ez dago arau estandarrik, pertsonaren beharren "neurritako jantziak" baizik.

#### 6. Prestakuntza edo praktikak egiten baditut, enplegatze aurretiko hautaketatik kanpo geratuko al naiz?

Esleituta duzun orientazioko profesionalarekin adostu duzunaren arabera dago.

Lan-bilaketan laguntza-prozesu oro pertsonalizatua izango da eta, horregatik, orientatzaileak eta langabeak fase bakoitzean jarduteko erarik egokiena zein den adostuko dute elkarrekin.

Pertsonak diru-sarreraren berehalako premia badu (familia-kargak izateagatik edo bestelako arrazoiengatik), zentzuzkoena da bitartekotzan jarraitzea, nahiz eta, adibidez, prestakuntza-prozesuan egon.

Nolanahi ere, pertsonak ez badu inolako lanbide-kualifikaziorik eta prestakuntza-prozesuan (ikasgelan edo enpresan) badago, komenigarria izan daiteke kualifikazio-prozesua ez uztea edozein lan-aukerarengatik; izan ere, epe laburrera interesgarria izan daitekeena, epe ertainera eta luzera desegokia izan daiteke eta.

#### 7. Zerbait ordaindu behar al dut?

Lanbidek eskaintzen dituen zerbitzuak erabat doan dira. Hala ere, orientatzaileak pertsonarekin adostasunean harentzat finkatzen dituen enplegurako baliabideak besterik ez dira finantzatzen. Gerta liteke, adibidez, itundutako ibilbidetik kanpo dagoen prestakuntza-ikastaro bat egitea interesatzea. Lanbidek ez du ikastaro hori finantzatuko.

#### 8. Bidaia ordainduko al dizkidade?

Lanbidek EAE osora hedatzea aurreikusi du, 35 eskualde-bulegoen bitartez. Helburua da haren zerbitzu guztiak herritar guztientzat eskuragarri izatea. Hala eta guztiz, bakoitza bizi den udalerritik gure eskualde-bulegoetara joan-etorriak egiteko gastuak sor daitezke, baina gastu horiek ez dira diruz laguntzen.

### 9. Beste enplegu-zerbitzu batean izena emanda egon al naiteke?

Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoari ez dizkio enplegu-politikak eskualdatu. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak berorren fondoekin sustatutako Lanbidez gain, badira enplegu-zerbitzuak eskaintzen dituzten Estatuaren mendeko beste erakunde batzuk, hala nola INEM. Norberak askatasuna du egokientzat hartzen dituen enplegu-zerbitzuetara jotzeko, horien artean ez baitago bateraezintasunik.

### 10. “Paperik gabeko” inmigranteei ere zerbitzuak eskaintzen al dizkiozue?

Lanbiden egoera irregularrean dauden inmigranteak hartu eta arreta egiten diegu, dituzten behar bereziak eta abiapuntuko egoera kontuan izanda.

### 11. Orientazioan sartuz gero, nire prestazioa galdu al dezaket?

Lanbidek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak bateragarriak dira gizarte-prestazioekin. Hala eta guztiz, badago “enplegu- eta prestakuntza-programa” izeneko baliabide bat, lan-kontratazioa eskatzen duena. Hura bateraezina izan daiteke prestazio ekonomikoarekin, kontratu horrek dakartzan diru-sarreraren kopuruaren arabera. Kasu horretan, pertsona horri aipatutako baliabidea zuzentzea komeni den ala ez aztertu beharko da.

### 12. Zer eskaintzen didazue enpresa bat sortzeko?

Lanbiden, negozioari ekiteko ibilbidearen fase guztietan pertsonalki prestatzen eta aholkatzen zaitugu: ideiak sortu eta lantzetik hasita (jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman eta hurrengo urte osoan), negozioaren bideragarritasunari buruzko azterketara eta hura abiarazteko prozesura iritsi arte. Gainera, enpresa sortzeko diru-laguntzak ematen dizkizugu, duela hiru hilabete baino gehiago langabezian bazaude, enpresa eratzen duten bazkide langileen kopurua kontuan izanda. Era berean, enpresak sustatzeko EAEn dauden laguntza-mota guztien berri ematen dizugu. Autoenplegua atalean horri buruzko informazio gehiago duzu.

### 13. Ez dakit zertan lan egin dezakedan. Hemen esango al didazue?

Hain zuzen ere, Lanbideren enplegurako orientazio-zerbitzuaren eginkizuna da pertsona bakoitzarekin haren lanbide-helburua finkatzea; hau da, zein lanetarako dituen sartzeko baldintza egokienak eta zein aukera dauden lan merkatuan zehaztea. Zenbaitetan bat-etortze hori ez da erraza eta lan-eskatzaileak lanbidera egokitzeko ahaleginak egin behar ditu, lanerako prestakuntza-ekintzen bidez, lanaren bilaketan arrakasta lortzeko aukera handiagoak izateko.

### 14. Lana aurkitzen badut, etortzen jarraitu behar al dut?

Esleitura duzun orientatzaileak, lortutako enpleguaren arabera (iraupena, lanbide-helburuarekin bat etortzea...) eta lan-munduratzeko zure plan pertsonala kontuan izanda, jarraipen-plan bat proposatuko dizu edota zerbitzua amaitzea erabakiko du.

### 15. Hemen, nire alabarentzat, emaztearentzat, senarrarentzat... lana bilatzen al duzue?

Lanbidek ez du langabeen artean banatzeko “lanik”. Informazioa eta aholkularitza eskaintzen dizkizu, lan-bilaketan arrakasta handiagoa izan dezazun.



## LANBIDEKO ORIENTAZIOARI BURUZKO GALDERAK

Lanbidek, enplegurako orientazio-zerbitzutik, orientazioaren arloko profesionalen aholkularitza eskaintzen dizu, lan-munduratzeko plan pertsonala adostasunez ezartzeko.

### **1. Prestatu nahi dut. Nola eman dezaket izena interesatzen zaidan ikastaroan?**

LANBIDEren Katalogoan ezarritako prestakuntza-ekintzetako batean sartu ahal izateko, LANBIDE Sareko enplegurako Orientazio Zentroren batera jo behar duzu.

Orientatzaileek laguntza profesionala emango dizute, prestakuntza-ekintza hori zure aurreko kualifikazioarekin, lan-merkatuko aukerekin, gehien interesatzen zaizkizun enpleguekin eta enplegu horiei dagokienez dituzun gaitasunekin koherentea den baloratzeko.

Elkarrizketa horretatik abiatuta, profesional horrekin batera, lan-merkatuan sartzeko ibilbide egokiena zein den eta garatu beharreko ekintzak edo urratsak zein diren finkatu ahal izango duzu.

Prestakuntza-ekintza hori lan-munduratzeko zure ibilbidearekin koherentea dela erabakitzen baduzue, orientatzailearen bitartez prestakuntza-ekintzan izena emango dizute.

### **2. Nola sar naiteke Orientazio-zerbitzuan, ikastaro batean izena eman diezadaten?**

Gertuen duzun zentrorra edota egokien jotzen duzunera joan zaitezke zuzenean, eta arreta jasotzeko hitzordua eska dezakezu bertan (kontsultatu LANBIDE – ORIENTAZIOA zerbitzuko erakunde laguntzaileen zerrenda).

Bestela, arreta egin diezazuten, telefono honetara ere deitu dezakezu:

- 901 100 003

LANBIDE – ORIENTAZIOA zerbitzuaren erakunde laguntzaileko profesionalak lagunduko dizute ekintza hori lan-munduratzeko zure ibilbiderako egokiena ote den erabakitzen.

### **3. Eta prestakuntza-ekintza ematen duen zentrorra zuzenean jotzen badut, horrek izena emango al dit?**

Ez, prestakuntzako erakunde laguntzaileek hurbilen duzun Orientazio Zentrorra joateko esango dizute, bertan ezin baitute prestakuntza-ekintzetan interesatuta daudenei zuzenean izena eman.

### **4. Orientazio Zentroak prestakuntza-ekintza batean izena emateak plaza bat ziurtatzen al dit?**

Katalogoan bildutako ekintza guztietarako plazen eskuragarritasunari buruzko informazioa dute orientatzaileek. Itxaron-zerrendan baldin bazaude ohartaraziko dizute eta konponbide bat ematen saiatuko dira, zure beharren eta LANBIDE – ORIENTAZIOA zerbitzuko erakunde laguntzaileen eskuragarritasunaren arabera.

### **5. Izena ematea doan al da, edo matrikularen ordaindu behar al dut?**

Lanbide Katalogoan bildutako ekintzak doan dira eta ez duzu inolako matrikularik ordaindu behar.

### **6. Lana aurkitzen badut, ikastaroa utzi al dezaket?**

Bai, baina hobe duzu zure orientatzailearekin kontsultatzea, ikastaroa uztea komeni ote zaizun bien artean aztertzeko.

**7. Ikastaroa arrakastaz amaitzen badut, zer emango didate?**

Prestakuntza-ekintzaren bidez lortu dituzun gaitasunei buruzko ziurtagiria lortuko duzu. Horri esker, kontrata zaitzakeen enpresak zure gaitasunei buruzko informazio zehatzagoa izango du.

Nolanahi ere, ziurtagiri hori Lanbide Kualifikazioen Euskal Sistemari ezagutzeko bidean dago.

**8. Parte hartu dudako ikastaroa amaitzean curriculum eguneratu behar al dut?**

Ez, LANBIDEk aldaketak automatikoki eguneratu eta zure curriculumean sartzen ditu.

**9. Web-orririk ikastaro batean izena eman al dezaket?**

Ez, Orientazio Zentrora jo behar duzu. Bertan, orientatzaileak erabakiko du prestakuntza-ekintza egokia ote den zure egoerarako eta lanbide-profilerako.

## 1. Zein izan daiteke LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuaren erabiltzaile?

### Lan-eskatzailleak:

Pertsona guztiak, edozein lan-egoeratan daudela ere. Arreta berezia jarriko da pertsona hauengan:

- Langabeak.
- Enplegu ezegonkorak dituztenak.
- Langabezian geratzeko arriskua duten enpleguak.
- Ez-aktiboak. Lan bila ari ez diren pertsonak, beraiantzat aukerarik ez dagoela usteagatik.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte: 16 urtetik gorakoa izatea eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izatea, edota espainiar nazionalitatearekin atzerriko egoiliar izatea.

### Lana eskaintzen duten pertsonak edo erakundeak:

- Pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, Espainiako lurraldean kokatutako lantoki batean lanpostu bat edo gehiago betetzeko beharra dutenak.

## 2. Langain izena emanda nago. Zer egin behar dut LANBIDEn izena emateko?

LANGAI zaharrear izena emanda bazaude, automatikoki LANBIDE – Euskal Enplegu Zerbitzuan zaude.

LANBIDE sortzearen helburua da Eusko Jaurlaritzaren enplegu- eta prestakuntza-programak erraztea eta horien kalitatea hobetzea.

Aurreko zerbitzuen marka eta izendapen guztiak izen bakarrear biltzen eta bateratzen dira: LANBIDE – Euskal Enplegu Zerbitzua.

Interesatzen zaizkizun zerbitzu guztiak dituzu LANBIDEn. Guztiak argi eta garbi identifikatzen dira: LANBIDE – ORIENTAZIOA, LANBIDE – ENPLEGATZEA, etab.

## 3. Zer egin behar dut LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izen emateko?

Lehentasunez, LANBIDE – ORIENTAZIOko zentro batera joan, bertan adieraziko baitizute jarraitu beharreko prozesua zein den.

## 4. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko zentro batean arreta jasotzeko aurretiazko hitzordurik eskatu behar al dut?

Halaberrez ez. Egoera hauetako batean egon zaitezke:

### – LHko edo Unibertsitateko titulazioa lortzeko zorian zaude

Galdetu zure ikastetxean ea LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko zentro laguntzaileen sarean ote dagoen. Hala bada, zentroak berak egingo dizu arreta. Hala ez bada, LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuetako zentroen bitartez sar zaitezke. 901 100 003 telefono-zenbakian emango dizute behar duzun informazio guztia.

- Dagoeneko izena emanda zaude eta zure eskaera/CVa aldatu nahi duzu

Zoaz LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA sareko edozein zentrorra. Bertan, arreta egin eta zure lan-egoerarako prozesurik egokiena gomendatuko dizute.

Bestela, deitu 901 100 003 telefono-zenbakira, zentro laguntzaile batean arreta jasotzeko hitzordua eman diezazuten.

- **Izen-emate berria**

Deitu 901 100 003 telefonora eta arreta egingo dizute.

Bestela, zoaz LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA sareko edozein zentrorra. Bertan, arreta egin eta zure lan-egoerarako prozesurik egokiena gomendatuko dizute.

Zure eskaera aldatu nahi izanez gero, zentroak une horretan duen eskuragarritasuna kontuan hartu beharko duzu. Elkarrizketak nahiko luze jotzen duenez eta elkarrizketatzaile homologatua behar denez, askoz ere hobe da aurretiazko hitzordua eskatzea, itxaron behar izan gabe arreta jasoko duzula ziurtatzeko. No necesariamente. Te puedes encontrar en alguna de estas situaciones:

#### **5. Lanbide Heziketako edo Unibertsitateko Ikasketak amaitzen ditudanean, izena eman al dezaket LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan, ikasketak egin ditudan ikastetxean?**

Bai, baina ziurtatu behar duzu ikasketak egin dituzun zentroa LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko zentro laguntzaileen sarean dagoela, bertako ikasleak aipatutako zerbitzuan sartu ahal izateko.

Hala ez bada, LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuetako zentroen bitartez sar zaitezke. 901 100 003 telefono-zenbakian behar duzun informazio guztia emango dizute.

#### **6. Aurretiazko hitzordurik eskatu gabe, zentro laguntzaile batean arreta jaso al dezaket CVa eta egoera administratiboa (demandaren alta, baja edo etena) aldatzeko?**

Aurretiazko hitzordurik eskatu gabe arreta jaso zenezake. Ekintza jakin batzuetarako, zentroak une horretan duen eskuragarritasunaren arabera dago.

CVan egin nahi duzun aldaketak zure lanbide-okupazioetan, prestakuntzan eta esperientzian eragina baldin badute, denbora jakin bat behar da eta elkarrizketatzaile homologatu batek egin beharko dizu arreta. Horregatik, arreta jasotzeko txanda gordetzea ziurtatzeko, aurretiazko hitzordua eskatu beharko duzu.

Nolanahi ere, 901 100 003 telefonoan, zure egoerarako konponbide egokiena gomendatuko dizute. LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuetako zentro batera zuzenean jo nahi baduzu (ikus dagoen sarea), bertan arreta egin eta zure egoera pertsonalerako prozesurik egokiena gomendatuko dizute,

#### **7. Dagoeneko izena emanda nago LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan eta eskaera berritu beharra daukat. Aurretiazko hitzordurik eskatu gabe arreta jaso al dezaket?**

Bai, baldin eta zentroak pertsona homologatu bat badauka eskaeraren kudeaketan edo eginkizun administratiboetan.

901 222 901 telefonoan ere berrituko dizute eskaera.

**8. Zer egin behar dut hitzordura joan ezin banaiz (eskatzaile gisa)?**

Hitzordua eskatuta duzun zentrora alde zuzenean aurretik deitu eta beste egun/ordu bat adostu.

**9. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emateko aurretiazko hitzordua eska al dezaket [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orrian?**

Ez. Deitu 901 100 003 telefonora edo jo zuzenean LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuetako zentrozen sarera.

**10. Zein dokumentazio aurkeztu behar dut LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emateko?**

Hasieran izena emateko: nortasun-agiri ofiziala (NAN, AIZ, pasaporte, etab.).

Egoitza nortasun-agiri ofizialean agertzen denaren bestelakoa bada, adierazitako egoitza egiaztatuko duen dokumentua aurkeztu beharko duzu.

Ondorengo eskaera-elkarrizketan aurkeztu beharreko dokumentazioa (CVa) hasierako elkarrizketan adieraziko dizute, edota aurretiazko hitzordua eskatzean, 901 100 003 telefonoan nahiz LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuetako zentrozen sarean.

**11. CVa eguneratzeko dokumenturik eraman behar al da?**

Bai. CVan gaineratu beharreko informazioa egiaztatuko duena. Adibidez, laneko ibilbidearen ziurtagiria, prestakuntza-tituluak (prestakuntza arautua, lanerakoa...), minusbaliotasun-ziurtagiria, txartel profesionalak...

Hasierako izen-ematearen kasuan, izena eman dizun LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko zentroan adieraziko dizute.

**12. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuko hedatutako eskaintza bat ikusi dut (esaterako, egunkarian), baina ez nago zerbitzuan izena emanda. Zer egin dezaket?**

Deitu 901 222 901 telefonora eta behin-behineko izen-ematea zein zentro laguntzailetan egin adieraziko dizute (ez duzu aurretiazko hitzordurik behar). Bertan jakinaraziko dizkizute eman beharreko gainerako urratsak.

**13. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emanda baldin banago, INEMen ere izena emanda al nago?**

Ez. LANBIDEn izena emateak ez dakar INEMen izena emanda egotea.

Nolanahi ere, LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emanda egoteak INEMeko lan-eskatzaile ere izatea dakar berekin, berezko eskubide guztiekin, prestazioak eta subsidioak eskatzekoa salbu.

LANBIDEk kudeatutako eskaintzekin bitartekotzan aritzeko, LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan izena emanda egon behar duzu.

INEMek kudeatutako eskaintzekin bitartekotzan aritzeko, INEMen izena emanda egon behar duzu.

**14. Kontsultatu al dezaket nire curriculuma [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orrian?**

Bai, jakinarazi dizkizugun pasahitz pertsonalen bidez, "Nire lanbidenet" atalean sartuta.

**15. Nire CVa eguneratu al dezaket [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orrian?**

Ez. LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA sareko zentzoren batera bertaratu behar duzu eta beharrezko egiaztagiria aurkeztu behar dituzu.

**16. Curriculumaren zein aldaketa-motak eskatzen du zentro laguntzaile batera joatea, eta zeinek ez?**

Guztiek eskatzen dute zentro laguntzailera joatea.

Hautabidez, Datu Pertsonalak Babesteko Legean jasota dagoen zuzentzeko eskubideaz balia zaitezke. [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orriko Nire Lanbidenet atalean kontsultatu dezakezu hori.

**17. Lanean hasten banaiz, nire lan-eskaera LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuan bajara pasatzen al da?**

Eskaera altan mantentzen da, baldin eta hura adierazitako datan berritzen bada.

**18. Alta, baja edo etenaren egoera alda al dezaket telefonoz deituz edo [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orriaren bidez?**

Ezin duzu zure egoera administratiboa telefonoz edo [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orriaren bidez aldatu. LANBIDE – ORIENTAZIOA edo LANBIDE – ENPLEGATZEA sareko zentro laguntzaile batera jo behar duzu eta aldaketa bertan egin, aldaketaren baimena sinatuta utzita.

Hautabidez, Datu Pertsonalak Babesteko Legean jasota dagoen zuzentzeko eskubideaz balia zaitezke. [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orriko Nire Lanbidenet atalean kontsultatu dezakezu hori.

**19. Nire eskaera Eskaeraren Alta eta Berritzeko Dokumentuan adierazitako egun zehatzean berritu behar al dut nahitaez?**

Legez bai.

Ezinbesteko kasuetan (gaixotasuna, tokiko festak...) eta eskatzaileak behar bezala justifikatuta, sistemak aukera ematen du aurreikusitako egunetik epea 2 egun luzatzeko.

Akats baten ondorioz, eskaera ez berritzeagatik baja sortuko balitz, hori behar bezala justifikatuz gero, egoera administratiboa aldatuko litzateke. Hala, "Baja, ez berritzeagatik" egoeratik "Alta" egoerara pasako litzateke eskaera.

**20. Ospitalean egoteagatik ezin izan dut nire eskaera berritu eta baja eman didate. Bajako aldi hori berreskura al dezaket?**

Bajako aldi hori berreskura dezakezu, hura behar bezala justifikatuz gero eta berreskuratzea hurrengo berritzea baino lehen eskatzen duzu (hau da, 3 hilabeteko epea duzu horretarako).

Ospitalean 3 hilabete baino gehiago eman behar baduzu, norbait zure izenean zentro laguntzailera joan daiteke, idatziz eta zuk sinatuta zure eskaera eten dezaten eskatzeko. Eskaera etenda dagoen bitartean ez dago hura berritu beharrik.

Hautabidez, Datu Pertsonalak Babesteko Legean jasota dagoen zuzentzeko eskubideaz balia zaitezke. [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orriko Nire Lanbidenet atalean kontsultatu dezakezu hori.

**21. Nola eguneratu dezaket nire eskaera horretarako aurretiazko hitzordurik eskatu gabe?**

Kontuan izan, zentro laguntzaile batean ez ezik, telefonoz (901 222 901) eta [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orriaren bidez ere egin dezakezula.

**22. Enpresa batek LANBIDEn zentro laguntzaile batengana jo al dezake lan-eskaintza bat kudeatzeko?**

Eskaintzak hartzeko eta/edo kudeatzeko profila duen LANBIDEn zentro laguntzaile orok langilea zuzenean kontratatzea eskatzen duen edozein enpresari erantzun diezaioke, bete beharreko lanpostuaren profila edozein izanik ere; enpresa **ABLE** bat edo **langileak hautatzeko enpresa** bat baldin bada **salbu**, horiek berariazko tratamendua baitaukat.

901 222 901 telefonoan zentroen zerrendari buruzko informazioa lor dezakezu, eta proposatzen dizutena onartzeko edo nahi duzuna hautatzeko aukera duzu. LANBIDE – ENPLEGATZEA zerbitzuaren enpresa erabiltzaile gisa erregistratzeari buruzko informazioa ere jaso dezakezu, [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) orriko “Lana eskaintzen dut” atalean.

**23. Zentro laguntzaile batek ABLE bati edo langileak hautatzeko enpresa bati alta eman al diezaioke, eskaintza kudatzeko eskaera berorren egiturarako planteatzen badu?**

Ez. ABLE-ek eta langileak hautatzeko enpresek zuzenean kudeatu behar dituzte euren eskaintzak, LANBIDeko Zerbitzu Nagusiek horretarako gaitasuna eman ondoren.

**1. Zeri ematen zaio diru-laguntza atal honetan?**

**A) Honako multzoetako langabeei mugagabeko kontratua egitea eta aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzea:**

- Langabe gisa gutxienez 3 hilabeteko antzintasunez inskribaturik dauden 45 urtetik gorako pertsonak.
- Luzaroko langabeak, hau da, langabetu gisa gutxienez 12 hilabeteko antzintasunez inskribaturik daudenak.

**B) Ondoan zerrendatutakoei aldi baterako kontratua egitea, mugagabeko kontratua egitea edo aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzea:**

- Enpresaburu indibidual batek hartutako soldatako lehen langilea, langabe gisa gutxienez 3 hilabeteko antzintasunez inskribaturik egon bada. (Ohiko autonomia; ez dira barne hartzen ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, baina mutualitateetan kotizatzen dutenak bai, hala nola arkitektoak, aparejadoreak...).
- Langabe gisa gutxienez 5 hilabeteko eta gehienez 12 hilabeteko antzintasunez inskribaturik dauden 30 urtetik beherako pertsonak.
- Langabe gisa inskribatuta egonik, buru-eritasuna duten pertsonak.
- Langabe gisa gutxienez 3 hilabeteko antzintasunez inskribaturik dauden guraso bakarreko familiako aita edo ama. Egoera horretan dago, honen ondorioetarako, ordaindutako jarduerarik egiten ez duen seme-alabaren bat edo batzuk bere kargura dituen pertsona.
- Terrorismo-ekintzen biktima izan diren pertsonak.
- Etxeko indarkeriaren biktima izan diren pertsonak.
- Gizarteratzeko eta lan-munduratzeko prozesua abenduaren 26ko 305/2000 dekretuak arautzen dituen lan-munduratzeko enpresaren batean burutu duten pertsonak; beti ere, kontratazioa prozesu hori amaitu eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan egiten bada. Kontratua gizarteratzeko eta lan-munduratzeko prozesua burutu eta berehala egiten bada, ez da beharrezkoa izango langabetu gisa inskribatzea.
- Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 dekretuan, eta maiatzaren 22ko gizarte-bazterkeriaren aurkako 12/1998 legea garatuz gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 dekretuan ezarritako laguntzen onuradun diren pertsonak, langabe gisa inskribaturik badaude.
- Pertsona toxikomano ohiak.
- Espetxeratutako pertsonak eta espetxeratu ohiak, espetxean daudenek inolako lan-kontraturik ez badute eta espetxeko erregimenak lanpostu bat hartzen uzten badie. Era berean, kontratazioa pertsona espetxeratu ohiei ere zabalduko zaie, beti ere, kontratazioa libre irten eta hurrengo 12 hilabeteen barruan egiten bada. Espetxean daudenen kasuan ez da beharrezkoa izango langabetu gisa inskribatzea.

**C) Honakoei aldi baterako kontratua egitea edo aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzea:**

- Gutxienez %33ko minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa aitortu zaien pertsonak, langabe gisa inskribaturik badaude.

**D) Gutxienez 30 pertsonako taldeari hiru hilabeterako kontratua egitea.**

Kontratuak europar batasunaren esparruko autonomia-erkidego edo estatu mailako enplegu-zerbitzu publikoren batean langabe gisa inskribaturiko pertsonekin egingo dira, nahiz eta, edonola ere, esandako hiru hilabeteko epe horretan egin beharreko kontratu guztien erdia deskribatu ditugun langabetu-talde horietakoren batean dauden pertsonekin hitzartuko den. Erakunde kontratatzaileak, langileen kontratazio kolektiboa egin baino lehen, Enplegu eta Prestakuntzako Zuzendariaren aurrean aurkeztu beharko du jarduera-plan bat, eta bertan adierazi beharko ditu bete beharreko lanpostuen ezaugarriak, epeak, aurreikuspenak, prestakuntza-beharrak eta kontratazio kolektiboaren tamaina zehazki definituko duten antzeko beste informazio batzuk. Diru-laguntza emateko, aipatu hiru hilabeteko epean egindako kontratu guztiak gauzatu egin beharko dira lehenbizi. Hiru hilabeteko epea amaitu eta gero espero ziren kontratazio-baldintzak bete ez badira, bai gutxienezko 30 kontratu horiek guztiak egin ez direlako, bai, kopuru horretara iritsita ere, lehen deskribatu ditugun langabetu-multzoetako pertsonentzat exijitzen den kontratazioa-erreserba egin ez delako, diru-laguntza adierazitako langabetu-multzoetako pertsonen egindako kontratuengatik bakarrik emango da.

**2. Zein izan behar du kontratuen gutxienezko iraupenak eta izan al daitezke lanaldi partzialekoak?**

- aldi baterako kontratuen gutxienezko iraupena: 18 hilabete, toxikomano ohiak diren pertsonen kasuan ezik.
- gutxieneko lanaldia: lan-hitzarmenaren arabera lanaldi osoaren %50, toxikomano ohiak diren pertsonen kasuan ezik.

**3. Zer diru-kopuruko laguntza dago ezarririk kontratazio hauetarako?**

- gizon baten lanaldi osoko kontratu mugagabea: 6.000 euro
- gizon baten lanaldi osoko aldi baterako kontratua: 2.500 euro, iraupena edozein dela ere.
- gizon baten aldi baterako kontratua lanaldi osoko kontratu mugagabe bihurtzea: 3.000 euro
- kontratatua emakumea bada, aurreko kopuruak %25ean gehitzen dira 3 kontratu motetan. Ondorioz, zenbatekoak hauek izango dira: 7.500 €, 3.125 € eta 3.750 €
- enpresa arrunt batek urritasunen bat duen pertsona bati aldi baterako kontratua egiteak jasoko duen diru-laguntza kontratua egitean indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldataren %55ekoa izango da, lanaldiaren eta iraupenaren arabera. (lanbidearteko gutxieneko soldata, 2004an, hileko 460,50 eurokoa da, hau da, urteko 6.447 euro; horrela, beraz, lanbidearteko gutxieneko soldataren arabera ordainsaria duen 18 hilabeteko kontratu baten laguntza izango litzateke:  $(1,5 \times 6.447) \times 55\%$ , eta honek guztira 5.318,78 euro ematen du, baina, kontuz! zenbatekoak ezin gainditu du urteko soldata gordinaren %60, kasu honetan 3868,20 euro; hau izango litzateke diru-laguntzaren zenbatekoa eta ez 5.318,78 euroak.
- Kasu guztietan, diru-laguntzaren gehienezkoa, kontraturiko pertsonak jasoko duen urteko soldata gordinaren %60 izango da.

#### 4. Zertan datza plantilla handitzea?

Kontratazioak plantillaren handitze garbia ekarri behar du, egin baino lehenagoko 12 hilabeteen aldean, Autonomia Erkidegoan dauden lan-zentroetara. Enpresa-elkarteetan edo enpresa-federazioetan, plantillaren handitze garbia bertako langile guztien baturaren gainekoa izango da.

Enpresak kontratazioa edo mugagabeko luzapena egin baino lehenagoko 12 hilabeteetan zuen batez besteko plantillaren kalkulua, hilabetez hilabete LAN UNITATEak batu eta emaitza zati 12 eginez kalkulatu da.

Adibideak:

- $-(lan\text{-unitate } 1 = \text{lanaldi osoz kontratataturik, hilabete osoa egin duen langilea})$ .
- $-(lan\text{-unitate } \frac{1}{2} = \text{lanaldi-erdiz kontratataturik, hilabete osoa egin duen langilea; edo lanaldi osoz kontratataturik, 15 egun egin dituen langilea; edo \%75eko lanaldiz kontratataturik, 20 egun egin dituen langilea;...})$
- $-(0,33\text{ lan-unitate} = \text{ohikoaren \%33ko lanaldiz kontratataturik, hilabete osoa egin duen langilea; edo lanaldi osoz kontratataturik, 10 egun egin dituen langilea; edo ohikoaren \%66ko lanaldiz kontratataturik, 15 egun egin dituen langilea;...})$
- $-(0,26\text{ lan-unitate} = \text{ohikoaren \%26ko lanaldiz kontratataturik hilabete osoa egin duen langilea; edo lanaldi osoz kontratataturik, 8 egun egin dituen langilea; edo ohikoaren \%66ko lanaldiz kontratataturik, 12 egun egin dituen langilea (0,66 x 12/30;...})$
- -eta horrela, hurrenez hurren

(Gogoan izan kontratazioaren hilabete LAN UNITATEei dagokien datua betetzean, dagozkion unitateen kalkulua HILABETE OSOA kontuan hartuta egin behar dutela, jakina, kontratatu berria ere alta hilabete horretako 1ean bertan egin izan balitzaio bezala zenbatuz (hau da, kontratua lanaldi osokoa baldin bada, LAN UNITATE 1en ekarpena egiten du, lanaldi-erdikoa baldin bada, ekarpena 0,50 lan-unitatekoa da, lanaldiaren \%75eko baldin bada, ekarpena 0,75 lan-unitatekoa da,...)

Kontratuaren lanaldia osoa baldin bada, plantillaren handitze garbiari dagokion eskakizuna betetzat hartzeko, kontratazioaren hilabeteen batez bestekoa gutxienez BATEan gainditu beharko du, *%50ekoa baldin bada (0,50 lan-unitate) batez bestekoa gutxienez 0,50ean gainditu beharko du,...*

Mugagabeko luzapenen kasuan plantillari eusteko eskakizuna betetzat hartzeko, mugagabeko luzapenak egin diren hilabeteen kopurua aurreko hamabi hilabeteetako batez bestekoaren berdina izan beharko du gutxienez.

#### 5. Zein da langileak kobratu behar duen gutxieneko soldata?

Urteko soldata gordinak, edo bazkide kooperatibisten kasuan urteko aurrerakin gordinak, 10.000 eurotik gorakoa izan beharko du, 6.1 artikuluko c) atalak aipatzen duen urritasunen bat duten pertsonak kontratatzearen kasuan ezik, horietan soldatak lanbidearteko gutxieneko soldataren parekoa izan beharko baitu (*2004rako, hileko 460,50 eurokoa da, hau da, urteko 6.447 euro*). Lanaldi partzialeko kontratazioaren kasuetan, ez dute diru-laguntzarik jasoko aplikatzekoa zaien hitzarmenean ezarritako lanaldi osoaren aldean lan-kontratuan ezarri den lanaldiaren iraupenak egiten duen proportzioa esandako kopuru horri aplikatuz ateratzen den zenbatekoa baino ordainsari txikiagoa duten kontratuak.

## **6. Zein epe daukat diru-laguntzarako eskaera aurkezteko?**

Bi hilabete, kontratuaren edo mugagabeko luzapenaren hasiera-datatik aurrera.

## **7. Nola kobratzen da diru-laguntza?**

Ordaintzeko era:

- %50 emandako unean,
- %50 kontratazioa egindako egunetik, edo hala dagokionean, aldi baterako kontratua mugagabe bihurtutako egunetik urtebete igaro eta behin. Horretarako, enpresak kontratuaren urtebeteko indarraldia betetzen den hilabeteko LAN UNITATEen kopurua egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, unitate horiek 9.1 artikuluan ezartzen den bezala kalkulaturik; horrekin batera, kontraturiko pertsonaren nominaren kopia eta Gizarte Segurantzari kotizatzearen dokumentu osoak (TC1 eta TC2 ereduak) ere aurkeztu beharko ditu, bai kontratazioa/mugagabe bihurtzea egin zen hilabetekoak, bai eta kontratuak urtea betetzen duen hilabetekoak ere (Kontratua hilaren 1ekoa bada, urtebeteko indarraldia aurreko hilabetearen azken egunean betetzen da, hau da, dokumentazioa aurreko hilabete horretakoa *izango da, eta beste edozein egunetan betetzen bada, dokumentazioa hilabete berekoa izango da*). Gainera, Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren, edo sozietate kooperatiben kasuan dagokien erakundearen ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dituzte, eguneratuak eta ale bikoitzez, enpresak erakunde horiekin dituen obligazioak egunean beteta dituela egiaztatzeko.

**TXANDAKO KONTRATUAK EGITEAREN ONDORIOZKO  
LAGUNTZEN GAINEKO III. ATALARI BURUZKO GALDERARIK  
OHIKOENAK. (PERTSONALA BERRITZEKO LAGUNTZAK)**

**1. Txandako langileak gaixotasun baten edo amatasunaren ondorioz baja hartzen badu, diru-laguntzari eusteko beste pertsona bat kontratatu behar al da?**

Gaixotasunaren edo amatasunaren kasuan bezala kontratua eteten denean, edota kontratatutako pertsonaren heriotzagatik edo baliaezintasunagatik kontratua iraungitzen denean, ez da exijituko ez itzulketarik ez eta aldi bereko kontratazioa egiterik ere.

**2. Txandako aurreko langilearen kontratua iraungitzeagatik, txandako langile berriaren kontratazioari buruzko jakinarazpenarekin batera, zein dokumentazio aurkeztu behar da?**

- Txandako uneko langilearekin egindako kontratua.
- Baja hartu duen txandako langilearen Gizarte Segurantzako baja-partea.
- Kontratututako txandako langile berriaren Gizarte Segurantzako alta-partea.
- Hura lan-eskatzaile gisa izena emanda egotearen INEMen ziurtagiria.
- Kontratututako pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

**3. Diru-laguntzaren 2. zatia kobratzeko zer dokumentazio aurkeztu behar dut eta noiz?**

Erantzuna aldatu egiten da txandako kontratuaren dataren eta haren iraupenaren arabera.

**A) Txandako kontratua 2003ko abenduaren 31 baino lehen egin bada eta aldi baterako txandako lan-kontratua bada:**

Txandako kontratua mugagabe bihurtzen denean, enpresa eskatzaileak, diru-laguntzaren 2. zatia kobratzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Txandako kontratua egin zeneko hileari eta hura mugagabe bihurtu zeneko hileari dagozkien txandako langilearen nominen eta Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinen (TC1 eta TC2 ereduak) orri guztien kopia.
- Zerga-betebeharretan egunean egoteari buruzko Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratua, bi aletan.

**B) Kontratua 2003ko abenduaren 31 baino lehen egin bada eta hasieratik kontratu mugagabea bada:**

Diru-laguntza eman ondoren, enpresa eskatzaileak, diru-laguntzaren 2. zatia kobratzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Txandako kontratua egin zeneko hileari dagozkion txandako langilearen nominen eta Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinen orri guztien kopia.
- Zerga-betebeharretan egunean egoteari buruzko Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratua, bi aletan.

**C) Txandako kontratua 2003ko abenduaren 31 eta gero egin bada, aldi baterako txandako lan-kontratua bada eta kontratu hori egin eta sei hilabete igaro ondoren mugagabe bihurtzen bada:**

Txandako kontratua mugagabe bihurtzen denean, enpresa eskatzaileak, diru-laguntzaren 2. zatia kobratzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

**TXANDAKO KONTRATUAK EGITEAREN ONDORIOZKO  
LAGUNTZEN GAINEN III. ATALARI BURUZKO GALDERARIK  
OHIKOENAK. (PERTSONALA BERRITZEKO LAGUNTZAK)**

- Txandako kontratua egin zeneko hileari eta hura mugagabe bihurtu zeneko hileari dagokien txandako langilearen nominaren kopia.
- Txandako kontratua mugagabe bihurtu zeneko hileari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinen orri guztien kopia, edota, langileen kopurua 25etik gorakoa bada, bi hile horietako pertsonal finkoari buruzko enpresa-ziurtagiria.
- Zerga-betebeharretan egunean egoteari buruzko Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratua, bi aletan.

**D) Txandako kontratua 2003ko abenduaren 31 eta gero egin bada eta hasieratik mugagabea bada edota txandako kontratua egin eta sei hilabete igaro baino lehen mugagabe bihurtzen bada:**

Diru-laguntza eman eta kontratazioa egin zenetik sei hilabete igaro ondoren, enpresa eskatzaileak, diru-laguntzaren 2. zatia kobratzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Txandako kontratua egin zeneko hileari edo, kontratazioa egin ondoren mugagabe bihurtu bazen, seigarren hileari dagokion txandako langilearen nominaren kopia.
- Txandako kontratua egin zeneko hileari edo, kontratazioa egin ondoren mugagabe bihurtu bazen, seigarren hileari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinen orri guztien kopia. Langileen kopurua 25etik gorakoa bada, bi hile horietako pertsonal finkoari buruzko enpresa-ziurtagiria aurkez dezake, eta ez du buletin kopia aurkeztu beharrik. Era berean, kontratua hasieratik mugagabea bada, kontratua egin zeneko hileari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinen orri guztien kopia aurkeztu beharko du.
- Zerga-betebeharretan egunean egoteari buruzko Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri eguneratua, bi aletan.

**4. Denbora-zatizko txandako kontratu bat diruz lagundu al daiteke?**

Ez. Txandako kontratuak lanaldi osokoa izan behar du, mugagabe bihurtuko denaren konpromisoarekin.

**5. Txandakotzat kontratatutako langileak enplegu-zerbitzu publiko batean lan-eskatzaile gisa izena emanda egon behar al du?**

Txandako langilea enpresako langile ez bada, lan-eskatzaile gisa izena emanda egon behar du. Bestalde, enpresan, obra edo zerbitzu jakin baterako aldi baterako lan-kontratua duen langile bat kontrata daiteke, baldin eta kontratu hori amaitu ez badu eta aldi baterako kontratu hori amaitzeko falta den denbora gutxienez beteko duen INEMen izena emandako beste langile bat kontratatzen bada.

**1. Zein laguntza izango luke enpresak pertsonalean langile bat kontratatuz gero, seme-alaba zaintzeagatik lanaldia murriztu duen beste langile bat ordezkatzeko?**

Araudiaren erreferentzia: 329/2003 Dekretua, abenduaren 23koa (VI. KAPITULUA).

Enpresarentzako laguntza: Gizarte Segurantzarako enpresa-kotizazioaren %100, kontratazioaren ondoriozko gorabehera arruntengatik.

**2. Seme-alaba zaintzeagatik lanaldia murriztu duen langilea ordezkaten duen pertsonari zein lanalditarako kontratatu beharko genuke?**

Lanaldia: titularrak murrizten duen denborari dagokiona gutxienez.

**3. Zein kontratu-mota egin beharko genioke?**

Bitartekotasun-kontratua.

**4. Aldi baterako laneko enpresa bat, langabeziaren ondoriozko prestazioak jasotzen urtebetetik gora daraman pertsona bat kontratatzen duena, familiakoak zaintzeko lan-utzialdiagatik beste langile bat ordezkatzeko, Gizarte Segurantzarako kuota-murrizketaren onuradun izan al daiteke?**

Lan-utzialdia seme-alabak zaintzeko bada soilik; ez, ordea, aurreko ahaideak edo bestelakoak zaintzeko. Halakoetan, 177/2002 Dekretuan ezarritako baldintzak betez, diru-laguntza Gizarte Segurantzarako enpresa-kotizazioaren %100ekoa izango da, gorabehera arruntengatik. Ez da kuotaren hobari bat, baizik eta kotizazioaren benetako gastura egokitutako diru-laguntza.

**5. Enpresa gisa diru-laguntza bat eskatzen badut, emakumezko langile bat lanaldi-erdirako kontratatzeagatik, seme-alaba zaintzeko lanaldia erdira murriztea eskatu duen emakumezko beste langile bat ordezkatzeko; ondoren, kontratatutako emakumezko langilearen lanaldia 2/3ra edo lanaldi osora zabaldu al dezaket, diru-laguntzarako eskubideari kalterik egin gabe?**

Bitartekotasun-kontratuak irauten duen bitartean, lanpostuaren titularraren lanaldi-murrizketaren ehunekoari dagokion zatiagatik jarraituko luke diru-laguntzak.

### **1. Pertsona toxikomano ohia kontratatu nahi nuke. Ba al dago diru-laguntzarik horrelako kontratazioetarako?**

Bai, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 23an emandako 329/2003 dekretuaren barruan, bada pertsona toxikomano ohia kontratatzeagatik laguntzak emateko programa berezi bat. Dekretu horrek arautzen ditu enplegurako laguntzak, kontratuaren soldata-kostuen zati bat estaliz.

### **2. Hasteko, zer egin behar dut?**

Lehenik, tratamendua ematen dion osasun-zentroari eskatu edo azaldu behar diozu bertako pertsona toxikomano ohi bat kontratatu nahi duzula. Une horretan hasiko litzateke prozesua eta osasun-zentroak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza saileko Lan eta Prestakuntza zuzendaritzara igorriko liguke toxikomano ohien programan onartzeko behar den dokumentazioa. Itxaron egin beharko duzu, Lan eta Prestakuntza zuzendariak sinatutako idazki baten bidez, osasun-zentroak pertsona toxikomano ohien programan parte hartzeko baimena onartu dugula jakinarazten dizun arte.

Bigarren urratsa: une horretatik aurrera aritu beharko duzu gurekin zuzenean. Programan parte hartzeko onartu dutela jakinarazi zaizunean, kontratazioari ekiteko epeak zabaltzen dira. Aurreko onarpenetik aurrera 3 hilabete dituzu pertsona horri kontratua egiteko eta, kontratazioa epe horren barruan egin eta gero, eskaera egin behar duzu lan-kontratua egin ditzun egunetik 2 hilabeteren buruan, programa honetako laguntzak jasotzeko.

### **3. Non aurkeztu behar dut kontratazio horren diru-laguntza jasotzeko eskaera?**

Eskabiderako eredia Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza saileko zure Lurralde Historikoari dagokion Lurralde-ordezkaritzan jaso behar duzu; 3. eredia da. Inprimakia bete eta bertan adierazitako dokumentazio osagarria erantsi beharko diozu. Gogoan izan kontratazioa egin eta hurrengo 2 hilabeteko epearen barruan aurkeztu behar duzula, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza saileko zure Lurralde Historikoko Lurralde-ordezkaritzan bertan.

### **4. Zenbateko laguntza jasoko dut eta nolako kontratua egin diezaioket?**

Diru-laguntzaren zenbatekoa soldata-kostuaren portzentaje batean datza. Soldata-kostutzat hartzen dugu sortutako soldata, aparteko ordainsariak eta soldata-osagarriak barne, eta enpresak Gizarte Segurantzari langileagatik kotizatutakoa.

Soldataren portzentajea lan-kontratuaren arabera aldatuko da, kontratu-modalitatea edozein dela ere:

- 6 hilabeteko aldirakoa: %80 enpresa pribatuan, %75 udaletan edo udal erakundeetan.
- 12 hilabeteko aldirakoa: %75 kasu guztietan.
- Programa honetan aldi baterako kontratuagatik diru-laguntza jaso izan eta gero, kontratu hori burutzean mugagabekoa egiten badiozu: %90 lehen 6 hilabeteetan.
- Mugagabeko kontratua hasieratik: %90 lehen 12 hilabeteetan.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, guztizkoaren %60, zure espedienteak posta ziurtatu bidez jakinaraziko zaizun ebazpena jasotzen duenean. Gainontzekoa, guztizkoaren %40, diru-laguntza jaso duen denbora-zatiaren buruan. Bigarren zati hori kobratzeko, diru-laguntza jasotako hilabete guztietako nominen eta Gizarte Segurantzako Tc1 eta Tc2 agirien kopiak aurkeztu beharko dituzu, baita Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko obligazioak egunean beteta dituzula egiaztatzeko ziurtagiri eguneratuak ere.

**5. Zer gertatzen da, edozein arrazoi dela medio, kontratua diru-laguntza jasotzeko epea bete baino lehenago deuseztatzen bada?**

Lehenik eta behin, nahitaez bete beharreko eskakizuna duzu egingo diozun kontratuan bi iraugipen-klausula ezartzea: osasun-zentroak bere sendatze-prozesuaren jarraipen eta kontrolaren inguruan emandako jarraibideetatik aldentzea eta, kontratuak diru-laguntza jasotzen duen aldiaren drogak kontsumitzea.

Bi kausa hauez gain, kontratua deuseztatuko duen beste edozein gertatzen bada, zure espedientea berrikusi eta diru-laguntza berriro kalkulatu da. Diru-laguntza jasoko duen aldi berria kontratuaren lehen egunetik deuseztatu den egunera bitartekoa izango da eta hasierako diru-laguntzaren portzentajeari eutsiko zaio, beraz, zenbatekoa hasieran emandakoa baino txikiagoa izango da.

### **1. Zein unetatik aurrera eska daiteke diru-laguntza?**

Araudiak 3 hilabeteko epea ezartzen du eskabidea aurkezteko, diruz lagundu daitekeen jarduna hasten denetik, hau da, lan-utzialdiaren edo lanaldi-murrizketaren hasieratik, kasuak kasu.

### **2. Zer da hirugarren interesatuaren altako fitxa?**

Eskatzailearen datuekin bete beharreko dokumentua da, eta diru-laguntzaren ordainketa egin diezazuten nahi duzun kontuari dagokion banketxean aurkeztu behar duzu. Eskatzaileak sinatu behar du, eta bankuak edo aurrezki-kutxak sinatu eta zigilatu behar du.

Onuradunak ordainketarako adierazitako kontuaren titularra izan behar du.

### **3. Non lor daitezke inprimakiak? Web-orrian agertzen diren inprimakiak erabil al ditzaket? Non entregatu behar ditut?**

Inprimakiak lurralde-ordezkaritza guztietan dituzu eskuragarri, hots:

ARABAKO LO: Samaniego kalea, 2-2. 01008 Vitoria-Gasteiz. Tel.: 945 01 70 45/46

GIPUZKOAKO LO: Vitoria-Gasteiz kalea, 3-2. 20018 Donostia. Tel.: 943 02 32 00

BIZKAIKO LO: Kale nagusia, 85-7. 48011 Bilbao. Tel.: 94 403 12 35

eta **ej-gv.es** gure web-orrian ere. Ordezkaritzetan bertan entrega ditzakezu, edo posta ziurtatu bidez bidali, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako moduetan.

### **4. Zeinek eman behar dizkit gizarte Segurantzako baja-partearen kopia, lan-utzialdiaren kasuan, edo Gizarte Segurantzako datuak aldatzeari buruzko partearen kopia, lanaldia murriztearen kasuan, edota lan-utzialdiaren edo lanaldi-murrizketaren ziurtagiria?**

Bi dokumentuak eskatzaileak lan egiten dueneko enpresak eman behar ditu.

### **5. Eskatu beharreko gutxieneko aldirik ba al da?**

Ez, araudiak ez du ezartzen gutxieneko aldirik laguntza eskatzeko. Nolanahi ere, hura ematen bada, gehieneko aldia hiru urtekoa izango da seme-alaba bakoitzeko.

### **6. Zein izan daiteke laguntza horren onuradun? Langile autonomo batek eskatu al dezake?**

Onuraduntzat hartuko dira besteren kontura lan egiten dutenak, enpresa pribatukoak nahiz administrazio publikoetakoak izanik ere, bai eta sozietate kooperatiboetako bazkideak eta Gizarte Segurantzako erregimen berezian alta emanda dauden etxeko langileak ere.

### **7. Diru-laguntza horiek bestelako familiakoak, hau da, gurasoak, aitona-amonak, osaba-izebak... zaintzeko suposizioa barne hartzen al dute?**

Ez, seme-alabak zaintzeko besterik ez dira, horiek naturalak nahiz adopzioan hartutakoak izanik ere.

**8. Zertan datza dirulaguntza? Kobratu beharreko kopurua bat al dator lan-egoera horietara biltzean jasotzen ez diren diru-sarrerekin? Baldintza ekonomikorik ba al dago? Familia-unitateen diru-sarrerak edo antzekoak kontuan hartzen al dira?**

Dirulaguntza horren helburua da egoera horietan sortzen den soldata-murrizketa konpentsatzea, baina ez dator bat lan-utzialdiagatik edo lanaldi-murrizketagatik onuradunak jasotzen ez dituen kopuruekin. Izan ere, ez da kontuan hartzen baldintza ekonomikorik, eta jaso beharreko kopuruak berberak dira, onuradunaren edo haren familia-unitatearen diru-sarrerak edozein izanik ere.

**9. Aldi jakin baterako diru-laguntza ematen badidate, aldi hori osorik bete behar al dut? Lehenago itzuli al naiteke? Zer egin behar dut halakoetan?**

Ez dago diruz lagundutako aldi osoa betetzeko inolako betebeharririk. Hala ere, onuraduna behartuta dago diru-laguntza emateko kontuan hartu den egoeran sortutako edozein aldaketaren berri ematera. Horretarako, aldaketa hori jakinarazteko idatzi bat bidali beharko du.

**10. Nola ordaintzen da diru-laguntza?**

Diru-laguntza gutxienez 2 zatitan eta gehienez 3tan ordaintzen da, eskatutako aldiaren arabera. Urtebeteko edo hortik beherako iraupena duten aldietarako 2 ordainketa egingo lirateke, bata diruz lagundutako aldiaren hasieran, eta bestea amaieran. Hortik gorako aldietarako 3 ordainketa egingo dira, lehena diruz lagundutako aldiaren hasieran, bigarrena jardunaren hasieratik urtebete igaro ondoren eta hirugarren aldia amaitzean.

**11. Zer dokumentazio aurkeztu behar da bigarren eta hirugarren ordainketak jasotzeko? Administrazioak ohartarazten al digu noiz entregatu behar dugun?**

Bigarren eta hirugarren ordainketak jasotzeko, onuradunak lan egiten duen enpresaren ziurtagiri bat aurkeztu behar du, onuradunak bere garaian eskatutakoa benetan eskuratu duela zehaztuko duena, eta hasiera-data eta amaiera-data (edota urtebete igaro deneko data, kasuak kasu) azalduko dituena. Lanaldi-murrizketaren kasuan, haren ehuneko ere ageri beharko da.

Administrazioak ez du idatziz eskatzen dokumentazio hori aurkezteko, aurkeztutako dokumentazioak baldintzak betetzen ez baditu salbu.

Diru-laguntza emateko ebazpenean jadanik adierazten da ordainketak nola egingo diren eta nola jardun behar den ere, hau da, onuradunak noiz aurkeztu behar dituen dokumentuak, bigarren eta, hala badagokio, hirugarren ordainketa egin ahal izateko.

**12. Diruz lagundutako aldia amaitu ondoren luzapen bat egin nahi badut, nola jardun behar dut? Idatziz jakinarazten badut, automatikoki luzatzen al da?**

Ez da automatikoki luzatzen. Beste eskabide bat aurkeztu behar da. Hala ere, dokumentazioari dagokionez, erroldatze-ziurtagiria eta aldi berrirako enpresa-ziurtagiria besterik ez lirateke erantsi behar, baldin eta gainerako baldintzak bere horretan mantentzen badira aurreko espedientearekiko.

**13. Lanaldia bi enpresatan edo gehiagotan egiten badut, lan-utzialdira edo lanaldi-murrizketara bilduz gero, nola egin behar dut eskabidea?**

Halakoetan, lan egiten duzun enpresa bakoitzeko eskabide bana egin beharko zenuke.

**14. Dirulaguntza bat baldin banuen eta hura eten egin badut, ondoren hari eusteko aukerarik ba al dut?**

Bai, baldin eta beharrezko baldintzak betetzen badituzu eta alde zuzenetik beste eskaera bat aurkezten baduzu.

**1. Langabea izan behar al dut, sustatzaile berri gisa prestakuntza eta aholkularitza lortu ahal izateko?**

Espiritu ekintzailea dutenei zuzendutako prestakuntza eta aholkularitza ez dago hertsiki langabeetara mugatuta. Hala eta guztiz, haiek lan-munduratzeko bide bat izateko pentsatua da batik bat. Hortaz, langabeak eta langabezian geratzeko zorian daudenak biltzen ditu. Nolanahi ere, enpresak sortzeko laguntzak jaso ahal izateko baldintzetako bat da langabe gisa izena emanda egotea autonomia-erkidego bateko edo Estatuko enplegu-zerbitzu publiko batean, Europar Batasunaren esparruan, gutxienez 3 hilabete lehenago.

**2. Eta nire enpresa berria sustatzen hasteko orientazioak zenbat denbora emango dit?**

Ekintzaileei zuzendutako orientazio-prozesuaren iraupena oso aldakorra da. Zeure beharren eta ekintzaile gisa lan-munduratzeko duzun plan pertsonala abiarazteko behar duzun laguntzaren arabera dago. Batzuentzat nahikoa da ideiak ordenan jartzeko laguntza-saio bakarra eta, ondoren, jarraipen puntual batzuk egitea. Beste batzuentzat, berriz, prozesuak zenbait hilabetetan harremanetan egotea eskatzen du. Horiekin, beraien denbora-eskuragarritasunari egokitutako saioen plana ezartzen da. Zoaz hurbilen duzun Lanbideko bulegora, eta orientazioko profesional batek adieraziko dizu zertan lagundu diezazukegun eta nondik has gaitezkeen.

**3. Zerbait ordaindu behar al dut?**

Lanbidek eskaintzen dituen zerbitzuak erabat doan dira. Hala ere, orientatzaileak pertsonarekin adostasunean harentzat finkatzen dituen enplegurako baliabideak besterik ez dira finantzatzen. Gerta liteke, adibidez, itundutako ibilbidetik kanpo dagoen prestakuntza-ikastaro bat egitea interesatzea. Lanbidek ez du ikastaro hori finantzatuko.

**4. Bidaiak ordainduko al dizkidate?**

Lanbidek EAE osora hedatzea aurreikusi du, 35 eskualde-bulegoen bitartez. Helburua da haren zerbitzu guztiak herritar guztientzat eskuragarri izatea. Hala eta guztiz, bakoitza bizi den udalerritik gure eskualde-bulegoetara joan-etorriak egiteko gastuak sor daitezke, baina gastu horiek ez dira diruz laguntzen.

**5. “Paperik gabeko” inmigranteei ere enpresak sustatzeko zerbitzuak eskaintzen al dizkiozue?**

Lanbiden egoera irregularrean dauden inmigranteak hartu eta arreta egiten diegu, dituzten behar bereziak eta abiapuntuko egoera kontuan izanda. Baliteke baldintza berezi horiek pertsonalki aztertu beharko diren zenbait muga ezartzea enpresak sustatzeko garaian.

**6. Enpresa bat sustatzeko asmoz enplegurako orientazioan sartuz gero, nire prestazioa galdu al dezaket?**

Lanbidek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak bateragarriak dira gizarte-prestazioekin. Hala eta guztiz, badago “enplegu- eta prestakuntza-programa” izeneko baliabide bat, lan-kontratazioa eskatzen duena. Hura bateraezina izan daiteke prestazio ekonomikoarekin, kontratu horrek dakartzan diru-sarreraren kopuruaren arabera. Kasu horretan, pertsona horri aipatutako baliabidea zuzentzea komeni den ala ez aztertu beharko da.

### **7. Zer eskaintzen didazue enpresa bat sortzeko?**

Lanbiden, negozioari ekiteko ibilbidearen fase guztietan pertsonalki prestatzen eta aholkatzen zaitugu: ideiak sortu eta lantzetik hasita (jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman eta hurrengo urte osoan), negozioaren bideragarritasunari buruzko azterketara eta hura abiarazteko prozesura iritsi arte. Gainera, enpresa sortzeko diru-laguntzak ematen dizkizugu, duela hiru hilabete baino gehiago langabezian bazaude, enpresa eratzen duten bazkide langileen kopurua kontuan izanda. Era berean, enpresak sustatzeko EAEn dauden laguntza-mota guztien berri ematen dizugu. Autoenplegua atalean horri buruzko informazio gehiago duzu.

### **8. Enpresa abiarazi ondoren, zer eskaintzen didazue?**

Enpresaren lehen urtean honakoa eskaintzen dizugu: aholkularitza eta prestakuntza, enpresaren iraupena eta finkapena ziurtatzeko, enpresaren arlo funtzional nagusietan jardunez (zuzendaritza, antolamendua eta kudeaketa; plangintza, marketinga eta merkaturatzea; ekonomia- eta finantza-kudeaketa eta giza baliabideena; fiskalitatea eta zerga-ordainketa, informazio- eta komunikazio-teknologia berriak...).

**1. Zein izan daiteke enpresa-egitura berriak sortzeko diru-laguntzaren onuradun?**

Banaka nahiz ondasun-erkidego, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate gisa, autonomia-esparruko edo Estatuko enplegu-zerbitzu publiko batean, Europar Batasunaren barruan (INEM edo LANBIDE - ENPLEGATZEA), gutxienez hiru hilabetez langabe gisa izena emanda agertzen diren eskatzaileak.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak diruz lagundutako enpresa-kudeaketari buruzko ikastaroren bat egin badute betiere, LANBIDE - ORIENTAZIO ZERBITZUko dagokion zentroaren erabakiz ikastaro hori egitetik salbuetsita daudenak izan ezik.

**2. Diru-laguntza eskatzeko nahitaezkozkat eskatzen den enpresa-kudeaketari buruzko ikastaroak zein baldintza bete behar ditu?**

Enpresa-sustapena bultzatzeko ikastaro bat izan behar da, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak diruz lagundutakoa. Gainera, ikastaro hori ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman aurretik egin behar izan da, eta haren amaiera-egunetik diru-laguntza eskatzeko egunera arte bi urte baino gutxiago igaro behar izan da.

**3. Enpresa-kudeaketari buruzko ikastaroa egitea nahitaezkoa al da denentzat?**

LANBIDE - ORIENTAZIO ZERBITZUaren erakunde laguntzaileek, eskatzailearen prestakuntza-ibilbidea aztertuta, hura ikastaroa egitetik salbuestea erabaki dezakete. Horretarako, egiaztagiri bat luzatu beharko dute.

**4. Zein epe dago diru-laguntzarako eskabidea aurkezteko?**

Epea bi hilabetekoa da, ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematen den egunetik hasita. Alta emateko egun hori ekonomia-jardueren gaineko zergaren dokumentuan interesatuak jardueraren hasiera-eguntzat jasotakoa da.

**5. Enpresak sortzeko laguntza eskatu eta jasotzeko, inbertsioren bat egin izatea egiaztatu behar al da?**

Ez, ez da beharrezkoa.

**6. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo biziz gero, diru-laguntzarik eska al daiteke?**

Interesatuaren helbide soziala eta fiskala, bai eta lantokia ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egotea eskatzen da.

**7. Enpresak sortzeko diru-laguntza bateragarria al da beste erakunde batzuen bestelako diru-laguntzekin?**

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren diru-laguntza bateragarria da beste diru-laguntza batzuekin. Hala eta guztiz, xede berarekin, finantzaketa-iturri horien bitartez lortutako laguntzen zenbateko osoa ezin izango da, inola ere, ezarrita dagoen gehieneko zenbateko osoa (proiektu bakoitzeko 30.000 euro) baino handiagoa izan.

**8. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari jakinarazi behar al zaio diru-laguntza emateko baldintzak aldatu izatea?**

Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera funtsean aldatuko duen edozein gorabehera jakinarazi behar da. Era berean, diru-laguntza onartzeko kontuan hartutako baldintzen edozein aldaketak hura emateko erabakia aldatzea ekar dezake, dekretu arautzailean ezarritako gutxieneko baldintzak beteko diren moduan.

**9. Autonomo gisa ezartzen den eta lehendik eraturako ondasun-erkidego, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate batean sartzen den norbaitek diru-laguntza eska al dezake?**

Ez, diru-laguntza enpresa-egitura berriak sortzera zuzenduta dagoelako. Gainera, baldintzetako bat da ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematen denetik bi hilabeteko epean eskabidea aurkeztea.

**10. Ondasun-erkidego, sozietate zibil edo merkataritza-sozietate batek enpresa-egitura berriak sortzeko diru-laguntza eska al dezake, kide batzuek dekretu arautzailean ezarrita dauden baldintzak betetzen dituztenean eta beste batzuek ordea ez?**

Enpresa sortzen denean, dekretu arautzailean ezarritako baldintzak betetzen dituzten kideek besterik ezin dute eskatu diru-laguntza.

#### 1. Gorabehera: SISTEMAREN GUTXIENeko ESKAKIZUNAK

- **Softwarea (gutxieneko ezaugarriak):**
  - Internet Explorer. Bertsioa: 6 SP1.
  - Acrobat Reader. Bertsioa: 4 edo aurrerratuagoa.
  - MS Word 98 edo aurrerratuagoa.
  - MS Excel 98 edo aurrerratuagoa.
  - Sistema **eragilea: Windows NT, XP, 2000 edo 98.**
- **Hardwarea eta konexioak (gutxieneko ezaugarriak):**
  - Pentium III ekipoa, 128 MB-ko RAMekoa, edota ezaugarri antzekoak edo aurrerratuagoak izango dituen.
  - 256 Kbps-ko edo antzeko ADSL linea, sistemaren erabiltzaile bakoitzarentzat. Aldi berean 2 erabiltzaile **edo gehiago baldin badaude, edo banda-zabalera hori Interneteko beste sarbide batzuekin partekatuz gero, banda-zabalera 512 Kbps-koa izan behar da (erabiltzaile-kopurua edozein izanik ere, banda-zabaleraren kalitatea ziurtatu behar da).**

#### 2. Gorabehera: SISTEMAREKIKO KONEXIOA

- **Egiaztatu ekipoa sareari konektatuta dagoela: egiaztatu kablea konektatuta dagoela.**
- **Egiaztatu sarerako sarbidea eraginkor dagoela eta erorita ez dagoela.**
- **Proxy** bidezko konexioaren kasuan, egiaztatu 7778 portua gaituta dagoela.

#### 3. Gorabehera: APLIKAZIORAKO SARBIDEA

- **Egiaztatu erabiltzaile-izen eta pasahitz zuzenak sartu dituzula.**
- **Egiaztatu** maiuskulak blokeatzeko tekla. Pasahitzak diskriminatu egiten ditu maiuskulak eta minuskulak.

#### 4. Gorabehera: SARTUTAKO DATUAK EZIN DIRA GRABATU

- **Egiaztatu nahitaezko eremu guztiak (atzealde horia) bete direla.**
- **Egiaztatu** ekintza baimenduta dagoela. Esaterako, prestakuntza-baliabidea bidali ondoren ("Eskabidea bideratuta" egoera), ezin da baliabidearen daturik aldatu.

#### 5. Gorabehera: SISTEMA MOTEL DABIL

- **Sistemaren abiadura Interneteko irteerak duen banda-zabaleraren kalitatearen arabera da:**
  - Irteerako abiaduran oszilazioa dago.
  - Konexioa une batez galdu egiten da.

**6. Gorabehera: APLIKAZIOAK ERRORE BAT EMATEN DU**

- **Errorearen** “pantailakada” egin (sakatu “IMPR PA” tekla, ireki dokumentu bat Power Point edo Word-en, kopiatu pantailakada eta bidali Erabiltzailearen Laguntza Zentrora). Atera aplikaziotik eta sartu berriro.

**7. Gorabehera: APLIKAZIOA ZINTZILIK GERATU DA**

- **Egiaztatu Interneteko arakatzalea egiaz geldirik ote dagoen edota konexioa une batez galdu den.**
- **Baliteke exekutatzen ari den ekintzak denbora jakin bat behar izatea. Adibidez: nahiko bolumen handiko fitxategia erantsiz gero, gerta daiteke eragiketa horrek denbora jakin bat behar izatea.**